




José Antonio Zarraga omendu dute, saskibaloian emakumezkoen parte-hartzea bultzatzeagatik. ▶21

Iker Deusto gazteak iaz eman zuen lehenengo kontzertua, Portu Zaharreko jaietan; DJ Deustoo izen artistikoagaz, berriro igoko da agerlekura aurton. ▶16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



99. zenbakia

2017ko
ekainaren 15etik
ekainaren 21era arte

© ARA MALIKIAN

Bihotz Alai, egunotako kulturgune

Ara Malikian biolin-jolea, Urko abeslaria eta Andrés Isasi Musikalia banda, eta Getxoko abesbatzak zein dantza-eskolak igoko dira agerlekura, udari ondoetorria egiteko. ▶18

AGENDA ERANDIO

Jaialdi feminista

Eskualdeko emakumeen topalekua izango da Erandio, zapatu honetan, ekainaren 17an. Bertan egingo dute Uribe Kostako bigarren Jaialdi Feminista. ▶8



HERRIZ HERRI PLENTZIA

Umeentzako herriaren bila

Plentzia Amesten egitasmoak familientzako zein umeentzako bilerak egingo ditu, hilaren 26an eta 28an, hurrenez hurren.

Tarte bateko geldialdiaren ostean, indarberrituta bueltatu da Plentzia Amesten egitasmoa. Joan den ekainaren 9an helduentzako prestakuntza-saioa egin zuten, umeen parte-hartzearen nondik norakoak azaltzeko; orain, familien eta umeen txanda da. ▶7

GEHIGARRI BEREZIA

Barrika, Leioa, Erandiogoikoa eta Sopela **laster jaietan!**

info +: 9-16. orrialdeak



Barrikako Argazkilaritza Rally Digitalaren hirugarren edizioa egingo dute, ekainaren 18an, domekan. ▶6

Lemoizko zentral nuklearraren lurraz zer egin ikertzeko lantaldea osatu dute Jaurlaritzak, Udalak eta Aldundiak. ▶6

Gorlizko Udalak udan kirolaz gozatzeko kolonia irekiak antolatu ditu: Gazte Aktiboa. Izena emateko epea zabalik dago. ▶7

Berangon abestuko dute Asparbi elkartearen abesbatzako kideek; parkinson-gaixoei osatzen dute abestaldea. ▶18



Barrura begira

BEA
SEVER EGAÑA
Chrysallis EHko kidea

Saiatu nintzen ni emakume izaten, baina...

Reimer abizeneko mutiko bikiak 1965ean jaio ziren Kanadan. Zortzi hilabete zituztela zirkunzisioa egiterakoan, bisturi elektrikoak biki bati zakila erre zion. Artean, John Money psikologoak sexu-identitatea eraikitzen zela zioen teoria defendatzen zuen eta aukera paregabea ikusi zuen hura erakusteko. Horrela, gurasoein adostu zuen mutikoari barrabilak kentzea, estrogenoak ematea eta -umeari inoiz ezer esan gabe- neska moduan hezte. Hasierako urtetan Moneyk jarraipena egin zuen eta bere arrakastari buruzko hainbat idazki zabaldu zituen.

Moneyren esperimentuaren porrotaren berri 1997an izan zuen munduak, kazetari batek biki haren istorioa argitaratu zuenean. Neska moduan hazi arren, Reimer inoiz ez zen neska sentitu. 13 urte zituela, depresioak jota, gurasoek psikiatra batengana eraman zuten eta, haren aholkuari jarraituz, egia kontatu zioten. 14 urterekin David izena hartu eta mutil moduan bizitzen hasi zen. 1997rako, bularrak erauzi, faloplastia egin, testosterona hartu eta emakume batekin ezkondata zegoen. Ur tetan zehar genital anbiguoekin jaiotako ehunka umeri zakilaren erauzketa egin zieten. David Reimerrek izandako antzeko bizipenak izan zituzten, pertsona transexual askok izan dituztenak, alegia. Bukaera ere antzekoa izan da sarri: 2004. urtean David Reimerrek bere buruaz beste egin zuen.

Oraindik ere bada identitate sexuala eraiki ahal den zerbait dela uste duen jendea. Horientzat zakila duten neskak eta bulba duten mutilak gurasoen edo gizartearen eraikuntza bat omen dira. Chrysalliseko familien partetik mezu bat: hain erraz aukuratu eta eraiki ahal izango bazen, sinetsi, inork ez luke biderik zailena hautatuko. ◀

Getxo

Errefuxiatuei babesa

Ekainaren 16an eta 17an Errefuxiatuen Nazioarteko Egunari lotutako hainbat ekimen egingo dituzte.

Datorren ekainaren 20an, martitzenean, Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna izango da. Hori dela eta, egun horren atarian hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Cear-Euskadik, Ongi etorri Errefuxiatuak Getxok, KCD Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak (GGKE) eta Bizilagunak ekimenak, Getxoko Udalaren laguntzagaz. «Gure hiria partekatuz, gure etorkizuna partekatuz» goiburua ipini diote ekitaldion.

Hala, batetik, Bizilagunak ekimenekoek Mila Zapore izeneko tailerra eta kulturen arteko afaria egingo dute barikuan, ekainaren 16an, Azebarri kultur elkartearen egoitzan, Algortako Euskal Herria kalean. Hitzordua 19:00etan ipini dute; hala ere, horretan parte hartu gura dutenek alde aurretik izena eman beharko dute, posta elektronikoz mezu bat bidalita edo telefonoz deituta.

Bestetik, hurrengo egunean, zapatuan, pertsona errefuxiatuakaz topaketa egingo dute. Horretan izango



Herritarren eta errefuxiatuen arteko elkarriketak bultzatzeko saioa egingo dute, hilaren 17an.

dira Bizilagunak, Zurrumurrurik ez eta Ongi Etorri Errefuxiatuak ekimeneetakoak. Topaketa horren helburua da herritarren eta errefuxiatuen arteko elkarriketak bultzatzea, «babesaren errealitatea ezagutzeko eta Getxoko udalerrria eta errealitatea ezagutzera emateko», azaldu dutenez. Ekitaldia 18:30ean hasiko da, eta ibilaldi bat egingo dute Bizkaiko Zubitik Portu Zaharrera. Horretan parte hartu

gura dutenek ere aurretik izena eman beharko dute. Horrez gainera, aipatzeko da joan den barikuan ekin ziotela Errefuxiatuen Nazioarteko Egunari lotutako egitarauari. Izan ere, egun horretan *Io Sto con la Sposa* izenburuko filma proiektatu zuten Areetako Andres Isasi musika-eskolan. ◀

izen-ematea: getxobizilagunak@gmail.com

644 277 155

inmigracion@getxo.eus

Gure Esku Dagok gazteentzako jaia antolatuko du zapatuan

Getxoko Gure Esku Dago taldeak Gazte Jaialdia egingo du zapatuan, hilaren 17an. Hala, 19:30ean musikak girotutako potea egingo dute, Villamonte tabernatik abiatuta. Kalerik kale ibiliko dira, jai giroan, eta argazki erraldoia egingo dute San Nikolas plazara helduan, «Getxon egingo den galdeketa babesa adierazteko», azaldu dute. Ondoren, Bi-

dean taldearen musikagaz dantzaldia egongo da, 22:00etan, Azebarri kultur elkartearen. Horren ostean, The Piper's Irish Pubera joango dira jaiari eusteko gogoz, 00:30etik aurrera. Hurrengo egunean, domekan, sinadurak batzeko azken eguna izango denez, berriro ere Sinadura Eguna egingo dute; «Ahalik eta txoko gehienetan mahaiak jarriko ditugu», iragarri dute. ◀

Senideak bisitatzeko diru-laguntzak berreskuratu guran

Udalerriko euskal presoen senideek salatu dute Getxoko Gobernu-taldeak «kontrako norabidea» hartu duela, «salbuespeneko espetxe-politika behingoz» indargabetezko bidean ipini beharrean. Agerraldiaren ostean, EAJko bozeramaileagaz bilera izan zuten; diotenez, horrek esan zien bere alderdiak ez duela laguntza horiek emateko konpromisorik. ◀



info+: hiruka.eus/getxo.

Santa Eugenia plazako txinboak mantenduko dituzte

Getxoko Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) Itzubaltzeta/Romoko Santa Eugenia plazan dagoen umeentzako txinboen, kulunken edo zabuen gunea mantenduko du, Romo kultur etxearen (RKE) aurrekoa. RKEren ingurunea egokitzeko proiektuari buruzko eta ekipamendu berria ezagutzeko antolatu den Plaza erakusketa bisitatu zuten pertsona gehienek eskatu dute horixe. Hori kontuan hartu eta esparruaren behin betiko osaketan sartuko dute txinboen gunea; horren gainean lanean dabilta udal-teknikariak. Guztira, 4.255 lagunek ikusi zuten erakusketa; martxoaren erdialdetik apirilaren erdialdera, RKEko atondoan. Hain zuzen ere, martxoaren 14an, erakusketa zabaldu zen egunean bertan erregistratu zen bisitari-kopuru handiena: 585. Proiektua Getxoko bizilagunei hurreratzea izan da erakusketaren helburua, eraikinaren egitura eta erabilerak zein plaza berriaren eta horren inguruen aldaketak hurbiletik ezagutzeko aukera izan zezaten. ◀

Erandio

Inbertsioak ikastetxeetan, udan

Eskoletan zenbait obra finantzatu ditu Erandioko Udalak; udalerriko ehunka ikasle izango dira onuradunak.

Erandioko Udalak udalerriko hiru ikastetxetan hobekuntzak egingo ditu uda honetan. Egoitz Bilbao Hirigintza zinegotziak zabaldu duenez, obrarik garrantzitsuenak Astrabuduan egingo dute, Ignacio Aldekoa ikastetxean.

Izan ere, 16 urteren ostean, bertako «aldarrikapen historikoari» konponbidea emango diote: gune estali bat sortuko dute. Bilbaok onartu duenez, «behar-beharrezkoa» zen patioan estaldura bat ipintzea, «ikasleak atsedendian klasean geratu behar ez izateko euria ari duenean». Estaldura parkingaren ondoan jarriko dute, eta, horren ondorioz, autoa uzteko 20 leku galduko dira, jolas-eremu sikua lortzeko. Hala, neska-mutilek 200 metro koadro gehiago izango dute patioan;

orain arte, 540 metrokoa zen. Lanak uztailan eta abuztuan egingo dituzte, 249.948 euroko aurrekontuagaz; diru horren % 60 Eusko Jaurlaritzak emango du. Datorren ikasturtean, emaitza horien onura aterako dute 550 ikasle baino gehiagok, eta bestelako herritarrek ere bai, gunea ikastordutik kanpo hiritarren topagune legez erabili gura duelako Udalak.

Modu berean, Altzaga ikastola-ko sukaldea zaharberrituko dute, 519 ikasleren onerako; 60.500 euro inbertituta. Gainera, antzeko kopurua erabiliko dute fatxada konpontzeko. Eusko Jaurlaritzak udal-inbertsioa lagunduko du, % 60 ordainduz. Azkenik, Goikolanda ikastetxean, 15.200 euro bideratuko dituzte eskaileretako zokaloetan babesgarriak ezartzeko. ◀



Lan denak datorren ikasturterako amaituta egongo direla ziurtatu du Udalak.

Tartanga «berdea» izan dadin, herri-ekimena sortu dute

Egun garrantzitsua izango da Erandioko Tartanga ingurua-arentzat eguna, hilaren 15a. Orduan amaituko delako Azpiegiturak foru-enpresak antolatutako lehiaketa publikoan eraikuntza-enpresek euren eskaintzak aurkezteko epea. Egin beharreko lanak dira Abaroa enpresak kaltetutako etxeak botatzea eta 113 etxebizitza eraikitzea, baita etxez aldatu behar izan zuten 66 sendiei behin betiko konponbidea ematea ere. Trukean, Azpiegiturak sozietateak Erandioko Udalak emandako Tartangako lursail bat eskaini du; 20.000 metro koadroko gunea da, eta 400 etxebizitza eraikitzeko aukera dago. Udalbatzaren gehiengoak babestu du hi-



© TARTANGA BERDEA

rigintza-operazioa; oster, auzokide denak ez daude ados. Hala, Tartanga Berdea herri-ekimena jaio da, «Altzagako gune berde eta publiko bakarra galtzeko zorian egoteak asko kezkatzen» duen askotariko kolektiboa da. Informazio-ekimenak abiatu dituzte. ◀

Enekuriko GES hartzekodunen konkurtsoetik atera da

Global Energy Services (GES) nazioarteko konpainia irten egin da hartzekodunen konkurtsoetik, enpresak berak iragarri duenez. Erandioko Enekuri auzoan egoitza duen sozietatea pasa den urtetik zebilen egoera horretan. Energia berriztagarriei lotutako eraikuntza-, muntatze- eta mantentze-zerbitzuetako enpresak 225 milioi euro kapitalizatu ditu. Gainera, 30 milioi likidezia-linea eta proiektuetarako 50 milioi abalak lortu ditu. Egoera horretan, enpresa erosi dio Cristian Lay (CL) industria-taldeak 3i inbertsio-talde ingelesari. Joan den otsailan, enpresak Enplegu Erregulazio Espediente bat iragarri zuen; 25 behargin kaleratzekoa zen Enekurin, ◀

Herri-galdeketa azaroaren 5ean egingo dute

Erandion herri-galdeketa antolatuko dute datorren azaroaren 5ean, «Getxo, Leioa eta Berangogaz batera». Hori jakinarazi du Erandioko Gure Esku Dago plataformak. Astrabuduan egindako herri-batzarrean, erabakia «aho batez» hartu zuten, GEDek azpimarratu duenez. Bilera berean, 50 bat pertsona prest agertu ziren herri-kontsulta antolatzeko egin beharreko zereginetan beharrean hasteko. Hala, erandioztarrek bat egingo dute maiztaren 7an bozkatu zuten Barrikako, Gorlizko, Lemoizko, Plentziako, Sopolako eta Urdulizko herritarrakaz, eta euren etorkizuna erabakitzeko pauso garrantzitsua emango dute, «Erandio, Ados!» goiburuagaz. ◀



Leioa



Ferrovial-Elctricidad Martín aldi baterako enpresa-elkartea arduratuko da sare osoa berriztatzeaz.

Kaleko argiak eta energia-hornidura

Dirua aurreztu egingo duela dio Udalak, kontratu berriari esker; «%20 gutxiago» ordainduko du.

Udalak Ferrovia-Elctricidad Martín aldi baterako enpresa-elkarteari (ABEE) esleitu dio udal-argiteria publikoa berriztatzeko eta mantentze-lanak egiteko kontratua; hornidura energetikoa ere horien ardura izango da. Agintari leioaztarrek azpimarratu dute dirua aurreztuko dutela, kontratu horri esker: «orain arte ordaindu behar izan dugunaren % 20 inguru gutxiago gastatuko dugu mantentze-zerbitzuagatik eta energia-horniduragatik. Horren truke, leioaztarrek ez dute gehiago ordaindu behar izango», azaldu dute udal-arduradunek. Baina, dirua aurrezteaz gainera, «eraginkortasuna eta berau osatzen duten instalazioen energia-iraunkortasuna hobetzea» ere ekarriko ei du kontra-

tu berriak. Bere aldetik, Ferrovia-Elctricidad Martín ABEE sare osoa berriztatzeaz arduratuko da; «Udalak instalazioen berme osoa izango du», nabarmendu du.

Bestalde, Udalaren energia-konsumoa ere gutxitu egingo da, agintariekin diotenez; eta udalerriko kale guztietan A Kalifikazio Energetikoa lortuko da. Berbarako, «etorkizunean, 291,10 tona CO₂ gutxiago sortzea lortuko dugu; 7.438 zuhaitz landatuen balio berbera dauka horrek», Udalaren berbetan. Bulego Teknikoak eta adjudikaziodun enpresak aurreikusitako diren hobekuntzak adostu eta programatu ostean, alderdi edo auzo bakoitzeko auzotarrei beraiei irismena jakinaraziko diete. Udalak aitortu duenez, «prozesua luzea izan da, kontratuaren konplexutasunagatik»; agintari leioaztarrek diotenez, «udal-teknikarien lanari eta Energiaren Euskal Erakundearen babesari esker», ondo atera da. ◀

Estali bako igerilekuak, ekainaren 17an zabalik

Hiru hilabetez egongo dira zabalik, astelehenetik domekara arte; irailaren 17an itxiko dituzte.

Torresoloko estali bako igerilekuak zapatu honetan, zabalduko dituzte, ekainaren 17an, udal-arduradunek iragarri dutenez. Horrez gainera, erabiltzaileek harre-ra-zerbitzua izango dute 946 004 475 telefono-zenbakira deituz gero, edo igerilekuen atezaindegian, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era. Sei hektareako Pinosoloko parkearen ondoan daude igerilekuak; jolaserako, kirolerako eta atsedenerako eremuak dituzte, besteak beste: familia-igerileku ludikoa, txikientzako hainbat ur-putzu, belarrezko solarium-eremua

dutxakaz, tenis-pista bat eta zazpi padel-pista. Horrez gainera, aldagelak, komunak, taberna-jatetxea eta aparkalekua ere badaude. Torresoloko estali bako igerilekuak irailaren 17ra arte egongo dira zabalik.

Uda-sasoian, asko dira kirol-instalazio horietara joaten diren lagunak. Udalak emandako datuen arabera, iaz, Leioako kanpoko igerilekuetara 58.229 erabiltzaile hurreratu ziren, guztira; horien arteko 33.752 bazkideak ziren, eta, 24.477, bazkide izan barik sartu ziren. Eguraldi ona egin zuenez, 2015ean baino jende gehiago joan zen instalazioetara: 13.502 pertsona gehiago, beren-beregi. Gainera, adin guztientzako tailerrak eta jarduerak egon ziren. Erabiltzaileen artean, arrakasta handia izan zuten ekintza horiek. ◀

info+: www.leioakiroldegia.net

Jaietako gune beltzak identifikatzeko galdetegia egin dute

Leioako Udalaren Berdintasun Sailak San Juan jaietan arriskuren bat sorraz dezaket «gune ilunak» identifikatzeko prozesua martxan ipini du; izan ere, sexu-erasoak saihestu gura dituzte. Hala, arazo edo arrisku horien inguruko online bidezko galdetegia egin dute; informazioa ekainaren 14ra arte batu zuten. «Zuen erantzun guztiak anonimoak izango dira, eta, horiek bildu eta gero, aztertu egingo dira. Horren bidez, Leioako segurtasun-egoera hobeto ulertu, eta sexu-erasorik eta eraso sexistarik gabeko jai seguruagoak izatera bideratutako alternatibak bilatzen ahaleginduko gara», azaldu dute Leioako Udaleko arduradunek. ◀

Bizikleta-martxa egingo du Bizibideak lantaldeak, domekan

Bizibideak taldeak Bizi Martxa antolatuko du domekan, ekainaren 18an. Bizikleta-martxan goizeko 11:00etan irtengo dira, Boulevardetik. Herriguneren ekimenez sortutako lantaldea da Bizibideak; horretan parte hartzen dute herritarrek, hezkuntza-zentroek, guraso-elkarteek, udal-teknikariekin eta politikariekin; «Leioa oinezkoen ikuspuntutik elkarregaz behatzea da asmoa», azaldu dute. Besteak beste, maiatzaren 8tik 19ra arte, Eskolara Lagunekaz egitasmoa egin zuten, herri osoan. Ekimenaren helburu nagusia zen umeak eskolara oinez bakarrik joatea. Proiektuan parte hartu duten eskolek hainbat lansaio egin zituzten alde zurretik, zentroetan. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



ikastolenelkartea



GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!



Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

Sopela

Olabideko bidearen inguruko prozesu parte-hartzailea, abian

Gobernu-taldeak inkesta bat egin du, besteak beste; ostera, EH Bilduren ustez, trikimailuak erabiltzen dabil herritarrek bide hori eraikitzearen alde egin dezaten.



Errepidea egitearen «egokitasuna» azaldu die Udalak herritarrei.

Olabideko industrialdearen eta Osteikoko etxebizitzaren artean, bide bat egiteko asmoa agertu du Sopelako Udalak, eta horren inguruko prozesu parte-hartzailea martxan ipini du. Olabide kalea eta Urdulizko ospitalea lotuko litzuke errepide berriak. Maiatzean egindako inkestaren arabera, bide hori eraikitzeko beharrezana 10etik 7,87koa dela esan dute sopeloztarrek. Hala, egunotan, informazio-orriak banatu dituzte, sopeloztar denek parte hartzeko moduen eta daten inguruko informazioa izan dezaten. Modu berean, Udalaren webgunean gune berezi bat zabaldu dute, erabiltzaileek beraien ekarpenak egin ditzaten, inprimaki baten bidez.

Ostera, Sopelako EH Bilduk haserrea agertu du EAJk eta PSE-EEk osatzen duten Gobernu-taldeak egindako galdeketaatik. Inkesta Gizaker enpresak egin zien 400 sopeloztari, telefonoz. Koalizio ezkerzalearen berbetan, «herritarrak Urdulizko ospitalerako errepidea egitearen alde ipintzera bideratuta daude galderak». Aldi berean, etxez etxe banatzen dabilzan informazio-orrietan «manipulazioa» igarri dela kritikatu du EH Bilduk. Besteak beste, hau aipatzen da: «Berangoko merkatalgunea laster zabalduko dute; trafikofluxua hobetuko du errepideak. Horrez gainera, Sopela eta Urduliz lotzen dituen errepideagaz bat egingo du, ospitalerako sarbidea bilakatuz». Ezkerzaleen berbetan, ordea, ez da «trafikoa areagotzearen daturik ematen».

Osteikoko errepideko tirabira ez da kontu berria: EH Bilduk proiektua geldiarazi zuen alkatetza bere esku zegoenean, «errepide horren bitartez, trafikoa asko handituko zelako udalerrri osoan»; EAJk egitasmoari eutsi dio aginte-makila berriro eskuratzean. ◀

Udalak zuzenean kudeatuko du euskaltegia, zerbitzua hobetzeko eta arazoak saihesteko

Sopelako euskaltegiak erakunde autonomoa izateari utziko dio eta Udalak kudeatuko du aurrerantzean bere osotasunean; eskaintzen dituen zerbitzuak «hobetu» gura dituzte, besteak beste. Ugariak eta oso larriak ziren hizkuntza-zentroaren funtzionamenduaz jasotako keak; baina, Gobernu-taldeak ezin ei zuen gauza handirik egin egoera bideratzeko eta konponbideak ipintzeko, «euskaltegia erakunde autonomoa zelako». Orain hartutako erabakiagaz, Udalak zuzenean kudeatuko du.

Erabakia aho batez hartu zuten alderdi politiko denek, apirilaren 27ko udalbatzan. Orain arte, euskaltegiak bere aurrekontua eta lanpostuen ze-

renda zeuzkan. Gontzal Hermosilla Sopelako alkateak adierazi duenez, «Gure helburu nagusia zerbitzua hobetzea da. Hala, aldaketak egon arren, Udalak beharginen lan-baldintzak bermatuko eta bere horretan utziko ditu». Horrez gainera, erabaki horrek «ikastaro berriak martxan ipintzea ahalbidetuko du, kudeaketa gardenagoa izango da eta oposizioak kontrol handiagoa izango du», agintari sopeloztarraren arabera. EAJk dioenez, «hemendik aurrera, kontrola, hilabetero egin ahal izango da, ohiko udalbatzordearen bidez».

Iazko azaroan, euskaltegiko ikasleek zein bertan ikasi zutenen keak mahai-gaineratu zituen Sopelako EH



Enrike Urrutikoetxea kalean dago euskaltegia.

Bilduk: oso ohikoa omen zen irakasleen kontratazioa hilabetezko atzerapenagaz bideratzea, besteak beste. Bestalde, «tratu desagokiak» jaso ei zituzten hainbat ikaslek. ◀

Buztingintza Museoa bisitatuko du Itzartu emakumeen elkarteak

Zapatu honetan, ekainaren 17an, Elosuko (Araba) Euskal Buztingintza Museoa ezagutzeko irteera egingo du Itzartu emakumeen elkarteak. Ekoizpen-tailerrak ere bisitatuko dituzte, eta eltzegileak lanean ikusiko dituzte. Museoa Elosuko Ollerías auzoan dago; nekazari-giroko paraje natural zoragarri batean, Urkiolako eta Gorbeiko natur parkeek inguratuta, Arabako urtegien ertz batean. Ortiz de Zarate familiaren buztingintzako tailerra zen jatorrian. Mendeetan milaka pieza egosi zituzten labe haietan; 1958an lan egiteari utzi zioten. 1993. urteaz geroztik, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean dago. ◀

info+: itzartu@gmail.com

OSABIDE Hartz-Klinika

Arantza Etxebarria

Ondo pasa jaietan!

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

Eraikuntza zerbitzu integralak

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

Illeta, 1. 48991 ALGORTA
944 305 243 - 607 952 977
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz

hau herikuntzatik
ander deuna
batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA - 94 676 02 66 - 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus - www.anderdeunakastola.eus

Barrika

Lau argazki, 3 orduan

Argazkilaritza Rally Digitalaren hirugarren edizioa egingo dute ekainaren 18an, domekan.

Hirugarrenez egingo dute Argazkilaritza Rally digitala Barrikan. Ekainaren 18an izango da, domekan. Parte-hartzaileen behin betiko izen-ema-tea goizeko 09:00etatik 09:45era izango da, Barrikako frontoian. Txapelketa, berriz, goizeko 10:00etan hasiko da. 18 urtetik gorakoa eta argazkilaritza-zalea den edozeinek parte har dezake lehiaketan; gehienez, 50 lagun lehiatu ahal izango dira. Rallyan parte hartzea doakoa da, baina parte-hartzaileek euren argazki-kamera digitala eta ekipoa erabili beharko dituzte; antolakuntzak memoria-txartel bana emango dio lehiakide bakoitzari. Frontoian ipiniko



Hiru orduan lau gairen inguruko argazki bana egin beharko dute parte-hartzaileek.

duten panel batean gai bat iragarriko dute, 45 minutuan behin; lau gai izango dira, denera. Hala, gai bakoitzeko argazkiak atera beharko dituzte, eta gai bakoitzeko argazki bakarra aurkeztu beharko dute; gainontzekoak

memoria txarteletik ezabatu beharko dituzte, 13:45ak baino lehen. Irabazleak garaikurra eta 400 euroko erosketa-txartela jasoko ditu; udalerriko argazkilari onenak, berriz, garaikurra eta 150 euroko erosketa-txartela. ◀

Lemoiz

Zentralaren lurren etorkizuna aztertuz

Udalak, Jaurlaritzak eta Aldundiak lantalde bat osatu dute lurak zertarako erabil litezkeen aztertzeko.

Zentral nuklearrearen lurrei zer-zelako erabilera eman aztertuko eta proposatuko duen lantaldea osatu dute Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Lemoizko Udalak. Izan ere, Espainiako Gobernuak euskal erakundeen esku utziko ditu lurrok, EAJ eta PPren arteko akordio baten ondorioz. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatu Imanol Pradalesek jakinarazi

duenez, talde horren lehenengo lana izango da lur-emate hori «berehala» egitea, «gehiagi luzatu barik». Gaineratu duenez, lursail horiek «Bizkairako eta Euskal Herrirako estrategikoak dira». Modu berean, gogorarazi du Iberdrolaren kontzesioa hurrengo urtean amaituko dela; horrenbestez, lur-eremu horiek EAEko erakundeen esku egongo direla azaldu du, «EAJk egindako akordioari esker». ◀

Poltsa konpostagarri gehiago banatuko ditu Lemoizko Udalak

Poltsa konpostagarriak banatuko ditu, berriro ere, Lemoizko Udalak. Horietakoren bat doan jaso gura duenak udaletxera hurbildu beharko du, astelehenetik barikura, 08:00etatik 15:00etara bitartean; kultur etxean ere eska daitezke. Poltsa konpostagarriak denboragaz biodegradatzen dira. Hori dela eta, baliteke etxean gordetako poltsak daborduko balio ez izatea. Udal-arduradunek adierazi dute etxeko hondakinak egoki eta ondo bereiztea garrantzitsua dela, «birziklapen-prozesuaren barnean, ohitura onak hartzea baino ez da lortu behar». ◀

Berango

Dantza eskolan izena emateko epea zabaldu dute

Ikasturtea amaitzeaz dela, hurrengoari begira ipintzeko ordua heldu da. Hori dela eta, 2017-2018 ikasturtean izena emateko epea zabaldu du Berangoko dantza-eskolak. Udal-eskaintzan askotariko dantzak ikas daitezke, berbarako dantza sortzailea, dantza klasikoa eta dantza garaikidea, 5 urtetik gorakoentzat. Izan ere, arduradunek jakinarazi dutenez, modalitate bakoitza adin tarte jakin batera zuzenduta dago. Modu berean, azaldu dutenez, taldeak sortzeko kontuan hartuko dituzte adina, maila eta espezialitatea. Ordutegia, berriz, 17:30etik 21:00etara izango da, astelehenetik barikura, «irakasleak adostu ondoren». Eskolak Berango-Merana eskolako gimnasioan izango dira. Asteazkenetik bi emango dituzte, eta prezioak 24 eta 36 euro artekoak izango dira, erroldatuta egotearen ala ez egotearen arabera. ◀

info+: danzacdart@yahoo.es

Uribe Kosta

Venezuelako Iraultza Bolibartarraren alde, manifestazioa Bilbon

Venezuelako Iraultza Bolibartarrak bere babes «oso» duela adierazi du Venezuela Aurrera! plataformak. Oposizioaren «faxismoaren aurrean» bere izaera antifaxista eta internazionalista berretsi du plataformak. «Gure elkartasunak ekarriko ditu Euskal Herriko kaleetara nazioarteko komunikabideak isilarazten saiatzen diren ahotsak». Hori dela eta, Venezuela Aurrera! plataformako eragileek manifestazioa deitu dute zapatuan, ekainaren 18an, 12:00etan, Bilboko Jesusen Bihoztean. Eskualdeko hamaika eragilek deialdiagaz bat egin dute. ◀

Īñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

AYOBERRI
Sagardotegia



ERRESERBAK:
94 676 42 57

Urduliz-Butroe errepeidea (Mendiondo auzoa,5). 48610 URDULIZ
www.ayoberrisagardotegia.net

Plentzia



Hurrengo saioak hilaren 26an eta 28an izango dira, Ontziola plazan. PLENTZIAKO LUDOTEKA

Plentzia Amesten egitasmoa aurrera doa

Geldialditxo baten ostean, indarberrituta bueltatu da Plentzia Amesten egitasmoa. Joan den ekainaren 9an, helduentzako prestakuntza-saioa egin zuten, haurren parte-hartzearen nondik norakoak azaltzeko. Ondoren, familien eta haurren bilerak egingo dituzte, hilaren 26an eta 28an, hurrenez hurren. Saio biak Ontziola plazan egingo dira, 18:00etatik aurrera. Arduradunek azaldu dutenez, bilera horietan, udalerriko egotzaren diagnostikoa egingo dute, eta

diseinu-faseari ekingo diote. Orduan ondorioztatuko diren emaitzen arabera, berriz, irailean martxan ipiniko duten proiektua eratuko dute.

Plentzia Amesten egitasmoa Udalak abiarazi du, Bizkaiko Urtxintza Eskolaren laguntzagaz. Horren helburua da umeei «kendutako» boterea «bueltan ematea». «Plentzia haurren begiradatik amesteko prozesua hasi dugu, betiere euskaraz, amets horietatik haurren Plentzia euskalduna erakitzeke!», gaineratu dute. ◀

Ikasturte amaierako jaialdiak egingo dituzte egunotan

Oporrak ia berton daude; hala, 2016-2017 ikasturteari egundoko amaiera emateko jaialdi bana antolatuko dute Plentziako Eskolako eta Uribe Kosta BHIko arduradunek, ekainaren 17an eta 19an, hurrenez hurren. Lehenengoek goizeko 11:00etan hasiko dute festa, tailerrakaz eta azokagaz. Ondoren, ikasleen lanak ezagutarazi eta bisi-

ta gidatua egingo dute. Gainera, lehia-keta bi egin ostean, bazkaria egingo dute, 14:30ean. Uribe Kosta BHIko ikasleek, berriz, musika-jaialdi batez gozatzeko aukera izango dute ikastetxeko patioan, 09:30etik aurrera. Bertan, El Puto Ben eta Lola Ramos rap eta pop abeslariak igoko dira oholtzara euren esperientziak kontatzera eta abestera. ◀

Gorliz

Kirolaz gozatzeko koloniak, prest

Gazte Aktiboa egitasmoan izena eman ahal izango da martitzenera arte.

Gazteentzako hamaika jarduerak antolatuko ditu Udalak uda honetan. Izan ere, Gazteria Aktiboa izeneko egitasmoaren barruan, 2000. eta 2004. urteen artean jaiotako udalerriko neska-mutilek askotariko kirol-jardueraz gozatzeko aukera izango dute, bost eguneko txandetan. Hala, honako jarduerak hauek egingo dituzte: kanoak, snorkell, surf, big sup, eskalada, rappel, coastering, arku-jaurtiketa, kart-ak, ginkana eta body board, besteak beste. Lehenengo txanda uztailearen 26tik 30era bitartekoa izango

da; gainontzekoak, abuztuaren 25era bitartekoak izango dira, bost egunekoak; 15:30etik 19:00etara. Parte hartu gura dutenek gurago duten astea aukeratu ahal izango dute, eskaera-orrian, hilaren 20a baino lehenago. Horretarako, kultur etxera hurre-ratu beharko dute. Prezioa 39 eurokoa izango da, Gorliz, Lemoizen edo Plentzian erroldatuta dauden umeentzat; gainontzekoek, berriz, 59 euro ordaindu beharko dituzte. Gorliz erroldatutako neska-mutilek lehentasuna izango dute, eta eskatzaileen kopurua eskainiko duten leku-kopurua baino handiagoa izanez gero, zozketa publikoa egingo dute. Neba-arrebek orri bakarrean izena ematea gomen-datu dute, «zozketa balego, elkarrekin egongo direla ziurtatzen da». ◀

info+: www.gorliz.eu

Ortu ekologikoen erabilera bultzatzeko diru-laguntzak

Gorlizko Udalak bere webgunean jakinarazi duenez, diru-laguntzak banatuko ditu ortu ekologikoak errentan dituzten eta udalerrian erroldatuta dauden auzotarren artean. Laguntza horiek jaso gura dituztenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: langabezian egotea; erretiratuta edo lanean ez egotea eta 55 urtetik gorakoa izatea; elbarria izatea; edo lan-merkatuan ezelako aukerarik ez duen gaztea izatea. Diru-laguntza horietako bat jaso gura dutenek eskaera udaletxean bertan egin beharko dute. Udal-arduradunek jakinarazi dute deialdian finkatutako oinarri-arauen arabera emango direla laguntzak. ◀

info+: www.gorliz.eu

Buruhandiak egiteko tailerrean izena eman daiteke oraindino

Uda hastear dagoela, udalerrri eta auzoetako jaietan txonbo egiteko ordua heldu da. Horregaz batera, ohikoa izango da kalez kale buruhandiak ikustea, neska-mutil gazteen atzetik korrika, hankamotelenak harrapatu eta kolpatu guran. Hala ere, egoera aldatzeko asmoz, 10 urtetik gorako gaztetxoek euren buruhandiak egiteko aukera izango dute uda honetan. Izan ere, Udalak halakoak egiten ikasteko tailerra antolatu du. Horretan parte hartu gura duten neska-mutilek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, ekainaren 20a baino lehenago, kultur etxean. Horrez gainera, udako jaietan buruhandia janzteko izen-ematea ere egun horretan amaituko da. ◀

XURRUT
X
Pizza Bar

946 771 389 · GORLIZ · www.xurrut.com



Arkatza belarrian

UNAI ETXEBARRIA BEITIA
Arkitektoa

Portuko petrilean eserita gaudela

Aupa» esan diot tabernariari; «¡Qué hay!» erantzuna. «Kaña bat», eskatu diot; berak «rubia o tostada». Ez diot ezer esan, baina ulertu dit. Basoa eman dit eta «bi» eskatu, edo «bi eta hamar», gora doa prezioa. Justu utzi diot; hark «Agur» esan, edo «Benga. Agur, bai». Kalera atera naiz, portuko petrileran, nire herrian, jakina. Arrastiko zortziak dira. Maite dut ordu honetan dagoen patxada: koadrilak eserita, kresal usaina, kaioak gertu. Iluntzen ari da. Ezer gutxi behar dut, zoriontsu ez dut esango, astunegia da hitz hori, gustura ibiltzeko: tabernari adeitsu bat, eguzki izpiren bat, begirada bat, harrizko petrila eta lagunak inguruan. ◀

Kalezuloko oholtzara igoko diren musika-talde denak emakumeek osatzen dituzte.



ERANDIO

Eskualdeko emakumeen harreman-sarea sendotzen

Uribe Kostako bigarren Jaialdi Feminista antolatuko dute hainbat taldek eta norbanakok, zapatu honetan, ekainaren 17an; Erandion egingo dute. «Eskualdeko emakumeen arteko harreman-sarea sendotzeaz» gainera, salaketa eta jai-giroa uztartu gura dituzte. Hala, dantza eta musika alde batera utzi barik, formakuntzari tarte eman nahi diote; hala,

Patriarcado, prejuicios, privilegios: mitos y ritos de la desigualdad zaintza-tailerragaz hasiko dute jardunaldia, 11:00etan, Irailaren 23a plazan; emakumeentzako zein gizonentzako tailerra da. Ordu eta leku berberetan egingo dute batukada-tailerra ere; emakumezkoentzat bakarrik. Ondoren, 15:00etan, bertso-bazkaria egongo da; Ane Labakak eta Onintza En-

beitak kantatuko dute. Txartelak 10 euroan egongo dira. Hala ere, antolatzaileen berbetan, «dirua ez dadi-la arazoa izan». Arrastian, batukada-poteoa egingo dute, 19:30ean; eta kontzertuak, 21:30ean. HDH, Pintxe Pendejak eta Garbiketa Txanda taldeek joko dute, Kalezulo gaztetxean; sarrerak 3 euroan egongo dira. ◀

bazkarian izen-ematea: ukfeminista@gmail.com

ERANDIO

Zapatuan egingo dute Athletic Eguna Astrabuduko zaleek

Zortzigarrenez antolatuko dute Athletic Eguna Erandion. Athletic Goitiko zaleen taldeak zapatu honetan ipini du hitzordua, ekainaren 17an, goizeko 11:00etatik aurrera. Mendiguren plazan jarduera ugari egongo dira: umeentzako puzgarriak, herri-bazkaria, mus- eta tute-txapelketak eta kontzertuak, besteak beste; txosna ere ipiniko dute. ◀



URDULIZ

Nur-en abentura berriakaz gozatzeko aukera egongo da

Lotura Films ekoiztetxeak eroan du pantaila handietara *Nur eta heren-sugearen tenplua*. Filma Urdulizko kultur etxean proiektatuko dute, zapatu honetan, ekainaren 17an. Hitzordua 18:00etan ipini dute; sarrerak 3,50 euroan egongo dira salgai. Toti Martinez de Lezea idazlearen izen bereko nobelan oinarritu dira filma egiteko. ◀

EKAINAK 18, DOMEKA

Jai-giroa berotzen

09:00 | Barrika

San Juan jaia. Besteak beste, Argazkilaritza Rally Digitala (09:00etan), ibilaldi herrikoia (09:00etan) eta Margolari Gazteen Kanpoko Lehiaketa egingo dituzte (12:30ean). Informazio gehiago: www.barrika.eu

JOLASAK

EKAINAK 15, EGUENA

Familian: euskal baleontzia

17:30 | Ontziola plaza | Plentzia

Euskaraz Olgetan. Ondorengo egunetan, Urdulizko Antsonekoa plazan (17:30), Gorlizko Ibarreta plazan (12:00) eta Sopelako Jauregizar plazan (12:00) egingo dituzte jolasak. Doan.

ANTZERKIA

EKAINAK 18, DOMEKA

El lobo y los tres cerditos

19:30 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Gorlizko Antzerki Taldeagaz. Gaztelaniaz. Doan.

BERBALDIAK

EKAINAK 15, EGUENA

Erandio y la voz de sus

milicianos en el frente

19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Ramón Rubial Fundazioak antolatuta. Geografian eta Historian lizentziaduna den Mentxu González Gerragaz. Gaztelaniaz. Doan.



*Barrikan eta Leioan, **sanjuanak!**
Eradiogoikoan, **Gorpuzti jaiak!**
eta Sopelan, **sanpedroak!***



Leioako jaiak

Ekainaren 22tik 25era Sanjuanak



Egitaraua

Ekainak 22, eguena

- 11:30** Hirugarren adinekoakaz dantzan. Ikea Barri plaza.
18:00 Hirugarren Adinekoen Jaia. Kandelazubieta kiroldegia.
19:00 Txupinazoa botako dute eta pregoia irakurri, Mari Peparen eta Arloteren eskumenez. Udaletxean. Ondoren, kuadrillen jaitsiera.
19:30 Animazioa Oihan Vegaren eskumenez. Boulevard.
17:30 Euskadiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa, 640 kilokoan. Tabernen ondoko landan.
21:00 Txupinaren jaurtiketa eta txosnen irekiera. Txosnagunea.
21:30 Saiheski-jana. Txosnagunea.
22:30 Kontzertua, DJ Patrol Destroyer taldeagaz. Txosnagunea.
23:00 Umore-bakarrizketak, Gorka Aginagalde eta Carolina Noriegagaz. Aldapa entzunaretoa.
23:30 Erromeria, Oxabi taldeagaz. Boulevard.
00:00 Kuadrillen musika, plater irekiak. Txosnagunea.

Ekainak 23, barikua

- 12:00-15:00** Umeentzako ekintzak. Errekalde plaza.
13:00 Bits-jaia. Euskal Etxeen plaza.
17:00-20:00 Umeentzako ekintzak. Errekalde plaza.
18:00 Kuadrillen arteko azeriaren ehiza (Txikiak). Pinosolo.
18:00 Kuadrillen arteko azeriaren ehiza (Ertainak). Udondoko bulebarra.
19:00 Kuadrillen arteko azeriaren ehiza (Nagusiak). J. R. Aketxe plaza.
19:00 Umeentzako ikuskizuna, Sardina Freskue taldeagaz. Euskal Etxeen plaza.
19:00 Txistularien kalejira.
19:30 Dantzaldia, Amigos del swing taldeagaz. Ikea Barri Plaza.
20:00 Ttek txaranga. Txosnagunea.
20:00 Euskal Kirolaren Gala, Leioako Euskal Kirolzaleak taldeak antolatuta. Boulevard.
20:30 Kuadrillen arteko Nagusientzako Jantzi Merkeen Lehiaketa. Kandelazubieta.
22:30 San Juan Gaueko ikuskizuna, Hortzmuga Konpainiagaz. Boulevard.
22:30 Erromeria, Garilak 26 taldeagaz. Txosnagunea.
23:15 San Juan sua isiotuko dute. Udaletxea.
00:00 San Juan gaueko Akelarrea eta, ondoren, erromeria. Txosnagunea.
00:15 Txokolate-jana. J.R. Aketxe plaza.
00:30 Magia-umorea, Jon Zabala eta Los Taps taldeagaz. Aldapa entzunaretoa.
00:30 Omenaldien gaua, Extremoduro eta Platero y tú taldeei. Boulevard.
01:00 Erromeria, Garilak 26 taldeagaz. Txosnagunea.

Ekainak 24, zapatua

- 10:00** Zatoz eskalatzeraz!. Boulevard.
10:30 Kuadrillen arteko tortillen eta sandwichen txapelketak. Boulevard.
11:00 Kuadrillen arteko herri-kirolak. Boulevard.
11:45 Eskubalo-partida. Sakoneta kiroldegia.

- 12:00-15:00** Umeentzako jarduerak. Errekalde plaza.
12:00-15:00 Ikusi Makusi, familientzako margo-tailerra. Ikea Barri plaza.
12:30 Waterpolo-txapelketa; Pedro Parola VII. Memoriala. Sakoneta kiroldegia.
13:00 Bits-jaia. Euskal Etxeen plaza.
14:00 Kuadrillen arteko sokatira (Nagusiak). Boulevard.
15:00 Kuadrillen bazkaria. Boulevard.
17:00-20:00 Umeentzako ekintzak. Errekalde plaza.
17:00 Eskalada Opena. Boulevard.
17:30 Udal Eskupilota Eskolaren finalak. Sakoneta kiroldegia.
17:30 Kuadrillen arteko txiki eta ertainentzako bestelako jolasak. Kandelazubieta.
19:00 Kuadrillen arteko nagusientzako bestelako jolasak. Kandelazubieta.
19:00 Txistularien kalejira.
19:00 Umeentzako disko-festa. Euskal Etxeen plaza.
19:30 Los Txikis taldearen kontzertua. Ikea Barri plaza.
19:30 Esku Pilota partidak; Manolo Calvo I. Memoriala. Sakoneta kiroldegia.
21:00 Sardina-jana. Txosnagunea.
21:00 Kuadrillen arteko txiki-entzako playbacka. Boulevard.
22:00 Hoax Attack taldearen kontzertua. Txosnagunea.
22:00 Kuadrillen arteko ertainentzako playbacka. Boulevard.
22:00 Musika-umorea, Golden Apple Quartet taldeagaz. Aldapa entzunaretoa.
23:00 Kontzertua, Guda Dantza taldeagaz. Txosnagunea.
23:00 Kuadrillen arteko nagusientzako playbacka. Boulevard.
00:00 Su-ikuskizuna, Pirotecnia Zaragozanaren eskumenez. Udaletxea.
00:30 Kontzertua, Reincidentes taldeagaz. Txosnagunea.
01:00 Disko-festa, Galkeregaz. Boulevard.

Ekainak 25, domeka

- 12:00-15:00** Umeentzako ekintzak. Errekalde plaza.
12:00 Kuadrillen arteko sokatira-txapelketa (Txikiak / Ertainak). Udondoko bulebarra.
12:00 Kuadrillen arteko umeentzako jarduerak. Udondoko bulebarra.
13:30 Kuadrillen arteko erlojupeko igoera (Txikiak / Ertainak). Aldapabarrena.
13:30 Bertso-saioa: Igor Elortza, Oihana Iguaran, Sustrai Colina eta Kerman Diaz. Ikea Barri plaza.
17:00-20:00 Umeentzako jarduerak. Errekalde plaza.
17:00 Kuadrillen arteko txiki eta ertainentzako Jantzi Merkeen Lehiaketa. Aldapa entzunaretoa.
18:00 Umeentzako ikuskizuna, Kantu Koloreren eskumenez. Txosnagunea.
18:00 Dantza-erakustaldia eta erromeria, Gure Ohiturak Dantza Taldeak antolatuta. Boulevard.
18:00 Kuadrillen arteko erlojupeko igoera (Nagusiak). Aldapabarrena.
19:00 Umeentzako ikuskizuna, Iban magoaren eskumenez. Euskal Etxeen plaza.
19:30 Larrain Dantza. Bulebarra.
20:00 Txistorra-jana, Leioako Merkatarien Elkartearen eskumenez. Boulevard.
21:00 Kuadrillen txapelketaren sari-banaketa. Boulevard.
22:30 Azken traka eta jaien amaiera. Boulevard.

MASTITXU UDAL EUSKALTEGIA
EUSKALDUN PAUSOZ PAUSO

MASTITXU EUSKALTEGIA
Iparragirre etorbidea, 78
48948 - LEIOA
euskaltegi@leioa.net
www.euskaltegi-leioa.com
1 94 484 00 02
Faxa 94 480 25 80

facebook.com/mastitxu

LEIOA

Udako ikastaro trinkoak
HABEren mailak egiaztatzeko ikastaroak

UZTAILA
Hasiera-data 2017/06/29
Amaiera-data 2017/07/21

IRAILA
Hasiera-data 2017/09/01
Amaiera-data 2017/09/22

5 ordu egunero, 85 ordu guztira
astelehenetik ostiralera
8:00-13:30

93,50 €
Aurrematrikula-data
2017/05/30etik aurrera

Matrikulazioa
2017/06/19tik
2017/06/21era

Matrikulazioa
2017/07/10etik
2017/07/13ra

Euskaraz ikastea diru-laguntza jasotzeko aukera
HABE diruz lagunduta

hiruka
Udako gida martxan da!

ESKUALDEKO UDAKO PROGRAMAZIO OSOA

JAIEN EGITARAUAK

Horretan zure taberna,
denda edo aisialdiko
zerbitzua iragarri gura
baduzu, ez galdu aukera!

944 911 337
publi@hiruka.eus

hiruka
Txonbo eg
jaietan!

Zaletasun eta adin guztietarako hamaika ekitaldi, sei egunez

San Juan jaien bezperako egunetan ere askotariko ekitaldiak aukeran egongo dira Leioan.

Lau eguneko jaiak nahikoak ez direnez, egun bi gehiagoz luzatuko dituzte ospakizunak; aurreko aste-akabuko egunakaz. Hala, Leioako XVII. Pop Rock Lehiaketako finalisten kontzertuak eta Antzinako Eguna egongo dira aukeran, ekainaren 16an eta 17an, hurrenez hurren.

Barikuan, hilaren 16an, musika-lehiaketako finalistak taularatuko dira Boulevarden ipiniko duten agerlekuan, 22:00etatik aurrera. Bertan, Bizkaiko hainbat talderen lanak entzuteko «aukera paregabea» egongo dela iragarri dute antolatzaileak. Izan ere, Dethlirium (Portugalete) eta Evil Seeds (Getxo) taldeek jardungo dute, Metal kategorian; Pop Rock kategorian, berriz, Mamagigi's (Sondika) eta Zazkel (Zeberio) taldeek jarriko dute doinua. Hasiera batean, Ofiura (Bartzelona) taldea izan zen azken kategoria horretako finalistetako bat, baina, antolatzaileek ohartarazi dutenez, talde horrek ezin izango du finalean parte hartu. Hortaz, epaimahaiak bere garaian aukeratu zuen ordezkia, Sondikako taldea, eta hori bera arituko da zuzenean bere azken lana aurkezten.

Kirol-ekitaldiak, jaien atarian

Jaiak, musikaz eta askotariko kultur eskaintzaz gozatzeko aukera egongo da egunotan Leioan. Horrez gainera, kirolzaleek ere ederto pasatu ahal izango dute, hilaren 16tik aurrera askotariko kirol-lehiaketak egongo dira eta udalerrian. Egun horretan, barikuan,



San Juan bezperako sua 23:15ean isiotuko dute, ekainaren 23an, barikuan,

II. San Juan Esku Pilota Txapelketa jokatu dute Sakoneta kiroldegian, 18:30etik aurrera. Hurrengo egunetan, berriz, munduko txapelketatxoa, kirol-eskolen erakustaldia, areto-futboleko txapelketak, padel-txapelketak eta borroka-arten zein areto-dantzen erakustaldiak egongo dira, besteak beste. Horien denen berri emateko, jaietako

liburuxkan kolore berezia eman diete jarduera horiei denei. Horrez gainera, umeen eta helduen XVII. Jota Txapelketa egingo dute, ekainaren 18an, domekan, Kandelazubieta plazan.

Trafikoa, jaiak iraun artean

Ohi legez, San Juan jaien ospakizunak direla eta. Leioako Udalak udalerriko

trafikoa berrantolatuko du, ekainaren 16an eta 17an, eta ekainaren 22tik 25era. Horren denaren nondik norakoak azaltzeko, atal berezia ipini dute Udalak eta Jai Batzordeak jaien egitarauaren liburuxkan. Bertan, gainera, suak botatzen dituztenerako zer segurtasun-neurri hartuko dituzten ere emango dute aditzera. ◀



Antzinako Eguna, berriro bueltan

Sua isiotu aurretik, Antzinako Eguna gozatzeko aukera izango dute leioaztarrek. Izan ere, hilaren 17an, egun osoko egitaraua antolatu dute Boulevarden; euria egin ez gero, berriz, Txomin Arestin eta Ikea Barrin egingo dituzte ekitaldiak. 10:30ean emango diote hasiera egitarauari, sukalki-txapelketaren izen-emateagaz. Ondoren, 11:30ean, zum-

ba-saioa egingo dute, eta, 13:00etan, herri-kirolen erakustaldia egongo da. Ordubete geroago, sukalki-txapelketaren lapikoak aurkeztu beharko dituzte. Ostean, 15:00etan, herri-bazkaria egingo dute. Arrastian, 16:00etatik aurrera, bingoa eta jolasak, zein sariak banatuko dituzte. 19:00etan, poeteo musikatuan ibiliko dira, eta erromeriaz gozatu ahal izango dute. ◀

You are the revolution...

NORTASUN HANDIKO BITXIAK

FLOVAR

Biteigileak • Joyeros

Erandio Ibarra, 2 Leioa Luis Bilbao Libano, 14

URONDO TABAKO DENDA

GORA LEIOAKO JAIK!

SABINO ARANA 67, LEIOA
944 649 233

PELUQUERIA **Kati**

ile-apaindegia

Erreserba egizu
Artatzagane 35 - Leioa
☎ 946 410 486
f KATI Peluqueria

Udondo Taberna

ONDO PASA JAIETAN!!

Lehendakari Agirre Plaza, 2
Tel: 665 732 657
LEIOA

Barrikako jaiak

Ekainaren 22tik 25era Sanjuanak



Egitaraua

Ekainak 22, eguena

19:00 Txupinazoa botako dute, eta pregoia irakurriko dute Gure Ixerdia elkarteak. Udaletxeko plaza.

20:00 Sardina-jana eta sagardo-festa. Udaletxeko plaza.

20:00-22:00 Dantzatlon jaialdia eta DJ Xaibor. Udaletxeko plaza.

Ekainak 23, barikua

10:00 Kontradantzak. Frontoia.

14:30-16:00 Herri-bazkaria. Udaletxeko plaza. Txartelak ekainaren 21era arte eros daitezke, udal-liburutegian.

16:00-17:30 Dantzaldia. Nagusien etxea.

16:30 VII. Askotariko Kirolen Jardunaldia. Barrikako Abaroa tenis-taldearen, Barrikako Piragua Taldearen eta Barrikako Futbol Eskolaren eskumenez.

18:00 Herri-kirolen erakusketa. Udaletxeko plaza.

20:00 Txan Magoa. Udaletxeko plaza.

20:30 Tai Ji-erakustaldia Udaletxeko plaza.

21:00 IV. Gaueko padel- eta tenis-txapelketa, emakumezkoen kategorian.

22:00 Silexez sua egiten ikasteko erakustaldia. Udaletxeko plaza.

22:30 San Juan suaren ikuskizuna, Zirkozaurre taldeagaz. Udaletxeko plaza.

23:30 Txokolate-jana. Udaletxeko plaza.

23:30 Erromeria, Lehian taldeagaz. Udaletxeko plaza.

Ekainak 24, zapatua

11:00 Meza nagusia. Eliza.

12:00-13:00 Aita Gotzon abesbatzaren eta Sopelako Abesbatzaren emanaldia. Udaletxeko plaza.

13:30 Dantza-erakustaldia, Barrikako Euskal Dantzak Taldeagaz. Udaletxeko plaza.

17:00 Mus-txapelketa arina eta igel-tokaren txapelketa. Nagusien etxea.

18:30 Monda Lironda pailazoen ikuskizuna. Udaletxeko plaza.

19:30 Dantza-plaza, Dangiliske taldeagaz. Udaletxeko plaza.

21:30 IV. Gaueko padel- eta tenis-txapelketa, gizonezkoen kategorian.

21:30 Kontzertuak, Talky Band eta Tucson Band taldeakaz. Udaletxeko plaza.

Ekainak 25, domeka

10:00 XVII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka. Tenis- eta padel-pisten aparkalekua.

11:00-13:00 Bertso-saio ibiltaria. Azoka.

11:00-14:00 Umeentzako parkea. Udaletxeko plaza.

11:30-15:00 XLI. Sukalki-txapelketa. Udaletxeko plaza.

13:00 Txopolis fanfarrea. Udaletxeko plaza.

18:00 Sorgina Txirulinaren antzezlan. Udaletxeko plaza.

19:00 Familientzako disko-festa. Udaletxeko plaza.

20:00 Saiheski-jan herrikoa eta jaien amaieran. Udaletxeko plaza.



Jai-egunetan Barrikan ez dira faltako jan-edana, musika eta giro ona.

Sutan dantzan!

San Juan jaiak ekainaren 22tik 25era izango diren arren, hilaren 18an ere zer egiterik egongo da.

Sanjuanak hilaren 22an hasiko badira ere, domeka honekin, hilaren 18an, jaien aurreko giroaz murgiltzeko aukera egongo da. Izan ere, barrikoztar ugari batuko dira egun horretan udalerriko kaleetan. Goizeko 09:00etatik aurrera, argazki-kamera eskutan duten hamaika gizon-emakume ikusi ahal izango dira, han eta hemen, argazkiak egiten III. Argazkilaritza Rally Digitalaren lehenengo saria irabazi guran. Ordu horretan bertan, V. Ibilaldi Herrikoa abiaraziko dute, Txintxilandia plazatik; goizeko 09:00etan, 13 kilometroko ibilbideari hasiera emango diote. Ordu bi geroago, berriz, ibilbide laburra hasiko dute; 3,5 kilometro luze izango du. Ibilaldi horietakoren batean

parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik izena eman ahal izango dute kultur etxean; egunean bertan ere izena eman daiteke, 08:00etan. Futbolzaleek ere gozatzeko aukera izango dute egun horretan, Jon Deunaren zazpiko futbol-txapelketa egongo baita 09:00etatik 15:00etara, futbol-zelaian. 12:30etik 14:00etara, ostera, margolari gazteen txanda izango da, kanpoko margolehiaketa egingo dute orduan. O eta 12 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute norgehiagoka artistiko horretan; adinaren arabera hainbat kategoriatan eta sari egongo dira. Azkenik, 17:00etan, Meñakoz hondartzatik ekarritako Barrika harriagaz harri-jasotzearekin txapelketa egingo dute, Iparralde tabernaren aurrean.

Hurrengo egunean, hilaren 22an, jaiari hasiera ofiziala emango diote, 19:00etan, txupinazoa botaz; barikuan, sutan dantzan ibiltzeko aukera izango dute barrikoztarrek eta bertaratuko direnek, Zirkozaurre taldeagaz batera. ◀



aek
euskara praktikoa

URIBE KOSTAKO AEK
UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Leioa 944 64 60 63 - lamia@aek.eus
Getxo 944 30 47 34 - lauxeta@aek.eus
Plentzia 946 77 36 07 - jentilbaso@aek.eus
Gorliz 946 77 36 46 - jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK
www.aek.eus/blogak/uribekosta/
www.aek.eus

EUSKALTEGIAK
ON-LINE IKASTAROAK
ERE BAI!

**2 ASTEKO
BARNETEGIAK**

**FAMILIA
BARNETEGIAK**

**BARNETEGI
IBILTARIAK**

673 200 100 - 946 464 000
www.aek.eus



Ekainaren 15etik 18ra Gorpuzti jaiak



Egitaraua

Ekainak 15, eguena

- 12:00** Meza. Ondoren, aureskua eta mokadua nagusientzat. Elizaren aurrea.
- 19:30** Pregoia irakurriko dute Damatzokoek, eta txupinazoa botako dute.
- 19:45** Buruhandiak, eta poteoa musika-eskolako trikitilariakaz.
- 21:30** Herri-afaria (txartelak aurretik salgai, Dandakan, 15 euroan).
- 23:30** Erromeria: Luhartz.

Ekainak 16, barikua

- 18:00** Olgetan Solas familiarteko kirol-jolasak.
- 19:30** Adiskideak txaranga.
- 21:30** Saiheski erre.
- 22:00** Kontzertua: Matutano, Oxabi erromeria-taldea eta Dja.

Ekainak 17, zapatua

- 11:00** Goi-Alde Dantza taldearen kalejira eta dantza-erakustaldia.
- 15:00** Paella-jana (txartelak aurretik salgai, Dandakan, 5 euroan).
- 16:00** Bazkalostea, trikitilariakaz.
- 16:00** Umeentzako puzgarriak.
- 20:00** Txitxi-burruntziak banatuko dituzte.
- 00:00** Erromeria, Akerbeltz taldeagaz. Ondoren, musika-saioa, DJ Munzagaz.

Ekainak 18, domeka

- 11:00** Lehen jaunartzeak eta Erandioko Musika Bandaren emanaldia.
- 12:00** Poteoa.
- 14:30** Lehiaketa: patatak errioxar erara.
- 17:30** Txinberak eta umeentzako disko-festa.
- 18:30** Lehiaketa: patata-tortilla.
- 21:00** Jaien amaiera eta kupelak hustea.



Zapatuan, erromeria-doinuak izango dira. © AKERBELTZ

Gorpuzti jaiak, festa-aitzakia

Berandu datoz aurten

Gorpuzti jaiak, baina berdin alaituko dute festa-giroa Erandiogoikoan.

Eguenetik domekara arte, jaie-tan murgilduta ibiliko dira Erandiogoikoko auzotarrak eta bisitariak. Damatxo emakumeen elkarteak irakurriko du pregoia, eguenean, 19:30etik aurrera, zortez egokitutako rola betez. Ostea, suziriari su eman, eta festa isiotuko dira.

Goi-Alde dantzari-taldeak eta musikak presentzia handia izango dute aurtengo jaietan. Besteak beste, entzungai egongo dira talde hauen doinuak: Luhartz, Akerbeltz eta Oxabi erromeria-taldeak, trikitilariak, Erandioko Musika Banda eta Erandioko

Udal Musika Eskolako ikasleak, Matutano musika-taldea eta DJak, tartean, Iñigo Muñoz erandioztarra, DJ Munza legez ezagunagoa.

Gasteen giroan txonbo egiteaz gainera, sendiek eta neska-mutilek ere izango dute zertaz gozatu. Hala, azkarrenek buruhandiak xaxatzeko aukera izango dute eguenean, 19:45ean; hankamotelenek, oster, kontuz ibili beharko dute, puxikakaz jo ez ditza-tan. Plan lasaia izango da Olgetan Solas familiarteko kirol-jolasena. Erandioko Udal Euskara Zerbitzuak antolatutako ekimena barikuan izango da, 18:00etan. Zapatuan puzgarriak izango dituzte neska-mutilek, 16:00etatik aurrera. Bestalde, domeka gastronomiaren eguna izango da, sukaldaritza-ren zaleek patatak zelan menderatzen dituzten erakutsiko baitute. ◀



INDARLAN

OBRAS Y EVENTOS S.L.L.


Gure bezeroen eskura honakoak jartzen ditugu:

EKITALDIETAN: komuna-eramangariak, modulu aurrefabrikatuak, txoznak, hesiak (itxiera, izuaren aurkakoak, oinezkoentzakoak...)

ERAIKUNTZA-ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK:

- Modulu aurrefabrikatuak (komunak, bulegoak, aldagelak), eskorak, segurtasun elementuak, itxiera-hesiak.
- Komuna automatikoak eta mantentze-lan berezituak.

Bermeo bidea, 5. Mungia. 94 471 14 41 - indarlan@indarlan.biz





- **Soropila Ezartzea**
Lurzorua prestatzeko lanak, drenatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, lurreko organitze lanak eta erate lanak.
- **Soropila zaintzea eta mantentzea**
Moztea, ureztatzea, organitzea, egurastea, aratzea eta destinkatzea, berrikalkitzea, soropila goiztatzeko eta belar goiztatzeko tratatzea.
- **Inausketat**
Hazteko, mantentzeko, beritzeko, zuhaitza opoingariak inautse, erabateko inausketat.
- **Barrukaldeak lorategi bihurtzea**

Avpe ibaiertza 28A beheko solairua B12 Lokala (ERANDIO) Meg: 629 41 18 38 · Tf: 94 467 17 13 · Faxa: 94 467 42 41
lubem@euskalnet.net · www.lubem.biz

Sopelako jaiak

«Pasa den urteko erakustaldia gainditzea oso zaila izango da»

Katigatuak kuadrilla sopeloztarra herriko jaietako txupina jaurtiko du aurten. Kuadrillen txapelketa irabazi zuten iaz, jaitsierarako egin zituzten mozorro ikusgarriak esker. Aurten ere herriari bizitasuna emateko konpromisoa berretsiko dute, beste 25 bat kuadrillagaz batera. Festak barrutik bizitzera gonbidatu dituzte oraindino hala egin ez dutenak.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA
ARGAZKIA: KATIGATUAK

Katigatuak kuadrillako kide gehienek txokoan ematen dute denbora gehien egunotan, jaietako mozorroak eta probak prestatzen. 24 eta 28 urte bitarteko gazteek lanak banatu, eta Eiharne Pardo Martínez aukeratu dute bozeramailetzat elkarrizketa honetarako, taldeko kide gazteena da bera.

Sopelako jaietako kuadrillen txapelketa irabazi zenuten joan den urtean. Zein da zuen sekretua?

Pasa den urtean, mozorroetan egon zen gakoa. Kristoren lana egin genuen horretan. Berez, ikuskizuna ez genuen ezertxo ere landu: egun bi lehenago bildu ginen eta gainetik jorratu genuen. Egin baino egun bat lehenago ipini ginen serio, baina ez genion ezta buelta bakar bat ere eman. Berez, nik

ia nire pausoak ere ez nekizkien. «Atera beharrekoa atera zedila» izpiritua-gaz joan ginen.

Zelangoak izan ziren jaietarako prestatu zenituzten mozorroak?

El rey León musikala hartu genuen eredu, eta ahalegindu ginen musika-lean agertzen diren mozorroak egiten; hortaz, kide bakoitzak mozorro bana izan zuen. Adibidez, maltzurak hiru baziren, bada, bakoitzak pertsonaia bana zeukan. Ahalegindu ginen pertsonaia bereziak sartzen.

Gai hori jaitsieran erabili zenuten?

Bai, hori da. Mozorroak horiek izan ziren eta ikuskizunerako musikalaren moldaketa bat edo egin genuen, filmaren zenbait eszena hartuta.

Zenbat kide zarete kuadrillan?

Hogeita... asko. Ez dakit zenbat zehaz-

ki. Berez, 30 inguru, baina jaietan parte hartzen dugunok ez gara hainbeste, jaietan hogeita gutxi edo gara.

Asko izateak abantaila eman zizuen?

Ez, asko izateagatik ez. Batez ere izan zen jendeak halako mozorroak ikustean hartu zuen harriduragatik. Kanpotik ikusi izan banu ere esango nuke «bua, zer landuta dagoen!». Jende askok esan zigun oso ondo egon zela.

Lehenengo proba da jaitsiera. Posizioari eutsi behar izan zenioten...

Bai, hurrengo egunetan ez geunden oso ziur: probak egin genituen, baina egiteagatik; daborduko pozik geunden egindako jaitsieragatik eta horregaz dagoeneko konforme geunden.

Zein izan zen probarik zailena?

Zailena ez, baina gehien landu beharrekoa tortilla- eta sangria-txapelketa.

Ez da izango! Benetan? Egia?

Kontua da goiz egon beharra dagoela, eta tortilla prestatzean adi egon beharra dagoela ere, patata zartaginean itsatsi ez dadin...

Eta zailtasuna edo traba zein da? Aurreko gaueko parranda?

Hori da! Txapelketan bertan egon nintzen patatak moztzen eta gazta ipintzen. Beste zerbait egin izan banu, agian, ez genuen jango, ezta aurkeztu ere! kar, kar, kar...

Kuadrillan, zenbat urte daramazue?

Urte-piloa! Udaleku batzuetan osatu zen kuadrilla, elkartzen hasi ziren, eta, apurka-apurka, handitzen joan gara.

Zergatik aukeratu zenuten Katigatuak izena?

Kuadrillen txapelketara aurkeztu ginen lehenengo aldan, egun asko

Oinutsik
Kontsulta podologikoa
Nahia Andrés Bilbao (Kol. Zb. 236)



Zubigane 4, SOPELA - 94 404 74 20
podologiaoinutsik@gmail.com

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Tendinitis
- Esginzeak
- Osteopatia
- Bizkarreko mina
- Giharretako lesioak

PARTIKULARRAK ETA ASEGURU KONPAINIAK

Loitzun Izaola Fisioterapeuta kol. zb./col. n. 459	Iratxe Olabarrieta Fisioterapeuta kol. zb./col. n. 589
---	---

Sabino Arana 30 atzean - 48600 Sopela
☎ 94 676 05 60 ☎ 627 67 45 36

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak	- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Eskolaz kanpoko ekintzak	- Talde txikiak
- Maila guztiak	- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TF. 94 676 30 12 - info@didakhamilton.com

Sopelako
Udal Euskaltegia
2017-2018 ikasturtea
A1•A2•B1•B2•C1

Euskalduntze
Maila guztiak: A1•A2•B1•B2•C1

Guraso Taldeak
Hasibarriak
Gurasoak lagunduz

Bizkaiera ikastaroa
Mintzapraktika
Ostalari, dendari eta
kirol entrenatzaileentzako
ikastaro bereziak

IRAILEAN
EUSKARA MAILAK
EGIAZTATZEKO IKASTAROK
Cursos para la acreditación de perfiles lingüísticos
2017-09-04 / 2017-09-28
ORDUTEGIA: 9:00-12:00 / 16:00-19:00
Matrikula epea: 2017-07-05

2017-2018
IKASTURTEA
Matrikula Epea:
2017/09/04
2017/09/28

ENRIKE URRUTIKOETXEA, 10
48600 SOPELA
Tel: 946 763 154
euskaltegia@sopelana.com

*Sopelako Udal Euskaltegiak
jai zoriontsuak opa dizkizue!*



Jaietan parte hartzen ez duten kuadrillak behingoz anima daitezen gura dute.

eman genituen pentsatzen: «egin behar dugu jaitiera, izen bat behar dugu...» eta, azkenean, kuadrillako batek bota zuen: «Katigatuak». Eta horrela geratu zen.

Noiztik parte hartzen duzue kuadrillen txapelketan?

Orain dela lau zapabost urte hona, jaitierak nagusiak egiten hasi zirenetik, hain zuzen ere.

Aurten, zein da zuen asmoa?

Kuadrillakoak hor dabilta orain, txokoan, dena egiten, kar, kar, kar! Hor ikusiko da: agian ez da izango joan

den urtekoa bezain landua, edo bai, ez dakigu. Baina, pasa den urtekoa gainditzea oso zaila izango da.

Epaile-taldean eroskeria egiterik badago edo guztiz zorrotzak dira?

Ez! Horrelakorik ez dago, ez. Gainera, aurten badira parte hartzen ez duten kuadrillak, «jubilatua» egin direnak, eta haiek egingo dituzte epaile-lanak. Haiek inork baino hobeto dakite zer lan dagoen hor atzean, zenbat denbora eman behar den kontu denak presatzeko eta abarretarako.

Kuadrillek jaietan bizitasuna ematen

diote herriari, eta jai-batzordeko lanak bideratzeko ere bertan izaten dira. Zuek bazaude hor?

Ez, gu zuzenean ez gaude jai-batzordean. Baina hor dago Sopelako Kuadrillen Koordinakundea, eta horren bidez ateratzen da zer egin jaietan; berbarako, jokoak kuadrilla den artean adosten ditugu eta, ondoren, SKK-k errotan ditu jai-batzordera.

Maiatzean egin zenuten herrian Kuadrilla Eguna; zelan pasa zenuten?

Oso ondo! Ni lanean nengibilen eta berandu heldu nintzen, baina esan zidaten dena ondo joan zela. Zelai errean jolastu ziren eta txapelketa antolatu dute kuadrillen artean, denbora pasatzeko eta aste-akabuetan zerbait egiteko. Bestalde, hasieran 15-16 kuadrilla zeuden eta nabaritu da asko igo dela parte-hartzea. Hori oso ona da herriarentzat. Giro hobea dago, ikusten da jendea prest dagoela kuadrillagaz aurrrera egiteko jaietan. Eskertzekoa da beti berdina ez egotea. Gainera, gazteek beste bizitasun bat ematen dute.

Jaietan barrutik parte hartzen ez dutenei zer esango zeniekete?

Animatzeko, alde handia dagoelako jaietan egotearen eta parte hartzearen artean. Beste modu batean ikusten da dena. Oso ondo pasatzen dugu, zeregina ditugu... Ez da bakarrik festa egitea edo 19:00etan irtetea ea zer dagoen ikustera. Giro erdian gaude, besteakaz hartu-emanetan. Oso giro bizia da! ◀

URIBEKOSTA EKODENDA
Ondo pasa jaietan!

BENTATXU KALEA 3
SOPELA (Udaletxe atzean)

www.uribekostaekodenda.com

946 522 558
682 733 622

La Kala
Sopela

IPINTXO GOXO GOXOAK!
IJAIAITAN KONTZERTUAK!

Sertutxa, 5
SOPELA

944 048 108

hiruka
zaitez!

Urtean **35€** baino ez

Trukean: zozketak, sariak ia astero, astekaria eguazteno...

ALURREN
Hiruka

GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA...
ETA GIRO EDERRA

Ripa kalea, 1 (Udaletxe atzean)
• SOPELA •

Irunbat
galp energia

Loiola Ander Deuna, 74
946 764 625
www.irunbat.net

Martitzen eta zapatuetan ESKAINTZA BEREZIA!

Gora Sopelako jaiak!

erroia
Kafetegia

Ondo pasa jaietan!

- GOZARIAK
- INPORTATUTAKO GARAGARDOAK
- EROATEKO PINTXOAK
- KONBINATUAK

Elizalde kalea 3, SOPELA
Tel: 944 048 648

Laiak

Bentatxu 2. SOPELA
94 676 03 28

GOSARIAK + PINTXOAK
Giro eta musika onena
Ondo pasa jaietan!

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK

Mekanika • Karrozeria • Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

BOSCH Service
Car Service

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

4BIDE PINTURAK
mugarik gabeko koloreak

- Pintura eta berniz lanak
- Paper margotuak
- Zoruak

Loroño, 2 SOPELA • 94 676 29 92 • 4bidepinturak@gmail.com

41 GETXO JAZZ

EKAÏNAK 28 - UZTAILAK 2
28 JUNIO - 2 JULIO
2017



BIOTZ ALAI
ABESBATZA PLAZA.
ALGORTA. **21:00**



28

Ekaina/Junio
Asteazkena/Miércoles

**ANDRZEJ
OLEJNICZAK
QUARTET**

29

Ekaina/Junio
Osteguna/Jueves

**CHRISTIAN SCOTT
SEXTET**

30

Ekaina/Junio
Ostirala
Viernes

**BILL EVANS
& DEAN BROWN BAND**

1

Uztaila/Julio
Larunbata/Sábado

DIANNE REEVES

2

Uztaila/Julio
Igandea/Domingo

**CHUCHO VALDÉS
QUARTET**

SARRERA SALMENTA / VENTA DE ENTRADAS

944 914 080
Getxoko Kultur Etxea
(Vilamonte AB)

k Getxoko Kultur Etxea
www.kutxabank.eus



944 914 080
www.getxo.eus
kulturetxea@getxo.eus

Antolatzaileak / Organizadores



Babesteak / Patrocinadores



Laguntzaileak / Colaboradores



UDAKO IKASTAROAK

UZTAILA ETA IRAILA
JULIO Y SEPTIEMBRE

• MATRIKULA ZABALIK!

Ekainaren 1etik 27ra
Del 1 al 27 de Junio

Azterketa ofizialak prestatzeko, 5 ordu egunero!

UDAN ERE EUSKARAZI!

6-16 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT
PARA ALUMNOS DE 6-16 AÑOS

• MATRIKULA-EPEA:

Uztailaren 3tik 28ra arte, 9:00etatik 12:00etara
Del 3 al 28 de Julio, de 9:00 a 12:00h.



BULEGO ORDUTEGIA:

9:30 - 17:00

94 460 66 71

j.a.agirre@euskalnet.net

www.jagirre.net

Algortako etorbidea, 104
48991- Algorta (Getxo)



Balkoitik balkoira egingo dute bertsoan

ALBEk antolatutako ekitaldi arrakas-
tatsuaren 19. edizioa egingo dute bari-
ku honetan, ekainaren 16an. Hitzordua
22:00etan ipini dute, Algortako Portu
Zaharrean; Imanol Uriak eta Alaia Mar-
tinek abestuko dute ◀

Rubiken kuboa, lehiatzeko aitzakia

Rubik kuboa egiten trebeak diren la-
gunek Plentzia Open 2017 txapelketan
parte hartzeko aukera izango dute, as-
te-akabu honetan, ekainaren 17an eta
18an. Kanporaketak goizeko 09:00etan
hasiko dira, Gofi Portal kultur etxean. ◀

El informe de Brodeck berbabide izango dute

Liburu-foruma egingo dute udal-liburu-
tegian, astelehenean, ekainaren 19an,
18:15ean. Philippe Claudel idazle fran-
tziarraren *El informe de Brodeck* libu-
ruaz berba egiteko aukera izango dute
irakurzaleek; sarrera, doan. ◀

EKAINAK 16, BARIKUA
Balkoitik Balkoira
22:00 | **Etzetxu plaza (Algorta)** | **Getxo**
Algortako Bertsolari Eskolak antolatuta. Imanol
Uriagaz eta Alaia Martinegaz. Euskaraz. Doan.

DANTZA

EKAINAREN 16TIK 18RA ARTE
XXIV. Getxotar Dantza Eguna
Bihotz Alai plaza (Algorta) | **Getxo**
Hiru egunez, bertoko dantza-eskoletako
berrehun bat ikasle batuko dira. Sarrera, doan.
Informazio gehiago: www.getxo.eus

EKAINAK 17, ZAPATUA

CDART Gala
17:30 | **Kultur Leioako entzungela | Leioa**
Ana Rosa Terceroren Erandioko
dantza-eskolaren ikasturte-akabuko jaia.
Sarrera: 6 euro.

IBILALDIAK

EKAINAK 18, DOMEKA
Burdin Heziaren aztarnak
ezagutzeko bisita-gidatua
09:00 | **Urko kiroldegiko parkinga | Sopela**
Doan. Informazio gehiago eta izen-ematea:
turismo@sopela.eus

JAIAK

EKAINAREN 15ETIK 18RA ARTE
Gorpuzti jaiak
Erandiogoikoa | Erandio
Familia-giroan gozatzeko aukera egingo da.
Informazio gehiago: www.erandio.eus

EKAINAREN 16TIK 25ERA ARTE

San Juan jaiak
Herrigunea | Leioa
Hasierako aste-akabuan, pop-rock lehiaketaren
finalak, Antzinako Eguna eta jota-txapelketa
egingo dituzte, besteak beste. Informazio
gehiago: www.kulturleioa.com

EKAINAK 17 ETA 18

Euskal Astea
Astrabudua | Erandio
Trabudu Dantzari Taldeak antolatuta. Zapatuan,
Costeseko (Nafarroa) dantza-taldeak eta
Trabuduk emanaldia egingo dute, 19:00etan,
Josu Murueta plazan. Domekan, berriz, kalejira
(11:30ean), dantza-emanaldia (12:00etan, Jose
Andrés Mendiguren plazan) eta dantzaldia
(18:00etan) egingo dira.

EKAINAK 16, BARIKUA

Olgetan Solas
18:00 | **Erandiogoikoa | Erandio**
Familiarteko kirol-jolasak. Euskaraz. Doan.

EKAINAK 19, ASTELEHENA

Akelarre jaia
17:00 | **Urizarreko eskola | Lemoiz**
Euskaraz Olgetan. Doan.

KIROLAK

EKAINAK 18, DOMEKA

Bizikleta-martxa
11:00 | **Boulevard | Leioa**
Herriguneren Bizibideak taldegaz. Doan.

MOBILIZAZIOAK

EKAINAK 16, BARIKUA

Tosuko landatik alde egiteko
aginduaren aurka
20:30 | **San Nikolas plaza (Algorta)** | **Getxo**
Kontzentrazioa egingo dute.

MUSIKA

EKAINAK 16, BARIKUA

Barre Ikara eta Tritón
21:00 | **Plaza Beltza kulturgunea | Sopela**
Sarrera, doan.

EKAINAK 17, ZAPATUA

Artaza Conbat eta Hexen
21:00 | **Plaza Beltza kulturgunea | Sopela**
Sarrera, doan.

EKAINAK 18, DOMEKA

Getxotar Abesbatzen Eguna
18:00 | **Bihotz Alai plaza (Algorta)** | **Getxo**
Hauek jardungo dira kantuan: Areetxo, Biotz
Alai, Erromoko Kantariak, Eskuz-Esku, Irutasun,
Itxartu, Kimetz, Ondarreta, Zozoak eta Andrés
Isasi Musika Eskolako abesbatza. Doan.

EKAINAK 20, MARTITZENA

Urko herrikoi
20:00 | **Bihotz Alai plaza (Algorta)** | **Getxo**
Andrés Isasi Musikalia bandagaz kantatuko du
Urko Abeslariak. Euskaraz. Sarrera: 5 euro.


EKAINAK 21, EGUAZTENA

Pandero-joleen ikuskizuna
19:00 | **Kurtzio kultur etxea | Sopela**
Sopelako Panderojoleak taldegaz. Doan.

**Zure ekitaldiren bat hemen ikusi
nahi baduzu, bi aukera dituzu:**

1 Bidali informazioa helbide
elektroniko honetara:
hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide
egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia
Agenda atalean.



Alaitz Telletxea musika-bikotekideagaz egindako bidaia arrakastatsua orain dela hogei bat urte atzean utzi zuen Zabalegik. © MAIDER ZABALEGI

Maiderren kontzertua, Gorilizen

Musikaren munduan betidanik jardun arren, Maider Zaba-
legik aurtengo udagoienean aurkeztu du bere bakarkako
lehendabiziko lana: *Zuei*. «Ilusioen eta ametsen itsasoan
nabigatzen duten hamar kantu gozo eta koloretsu» aurkez-
tu ditu Oiarzungo kantariak. ◀

Noiz: Ekainak 17, zapatua.
Ordua: 20:00
Non: Gorlizko udaletxeko aurreko plaza.
Sarrera: Doan.



Urko abeslariak eta Andrés Isasi Musikalia bandak batera abestuko dute, *Urko herrikoi* ikuskizunean. © KIMETZ

Egitaraua

Ekainak 16-18

XXIV. Getxotar Dantza Eguna

Barikuan, Dantzarteko ikasleak arituko dira (20:00). Zapatuan, Carmen Vera (18:30) eta Ana Lara (20:30) dantza-eskolakoen txanda izango da. Eta, domekan, Areetako flamenko-eskolako ikasleena (12:30). Doan.

Ekainak 18, domeka

X. Getxotar Abesbatzen Eguna

18:00 Parte-hartzaileak: Areetxo, Biotz Alai, Erromoko Kantariak, Eskuz-Esku, Irutasun, Itxartu, Kimetz, Ondarreta, Zozoak, Andrés Isasi musika-eskolako abesbatza. Doan.

Ekainak 20, martitzena

Urko eta Andrés Isasi Musikalia banda

20:00 Sarrera: 5 euro.

Ekainak 22, eguna

Ara Malikian biolin-jolea

20:30 Sarrera: 32 euro.

Bihotzak alai ditzagun!

Dantzaldiakaz eta musika-emanaldiakaz ekingo diote udari, Algortako Bihotz Alai Abesbatzaren plazan.

Hiru egunez, Getxoko dantza-eskoletako eta akademiako 200 bat ikasle batuko dira, Algortako Bihotz Alai Abesbatzaren plazan, ekainaren 16tik 18ra bitartean. Estilo askotako

erakustaldia eskainiko dute: koreografia garaikideak, klasikoak eta neoklasikoak; baita dantza flamenkoa ere. Domekan, abesbatza getxoarrei gorazarre egin gura diete, «musika korala zabaltzeko egiten duten lan han-

diagatik»; hamar abestalde kanta-tuko dute. Egitarauari jarraituz, *Urko herrikoi* ikuskizuna aurkeztuko dute Urko abeslari ezagunak eta Andrés Isasi Musikalia bandak, martitzenean, ekainaren 20an.

Azkenik, Ara Malikian musikari entzutetsuak Algortan geldialdia egingo du, askotariko kulturak bateratzen dituen ikuskizuna aurkezteko: *La increí-*

ble gira del violín. Horren protagonista biolin bat da; Modenan «jaio» zen eta Libanoraino bidaiatu zuen, 3 urteko Ara txikiagaz bat egiteko. Bere aitak irakatsi zion Malikiani tresna jotzen, eta ordutik ez dira «elkarrengandik» aldentu. Paganiniren musika ezagutu zuten «elkarregaz», eta urteen joan-etorrian, bidean, musika-genero asko eta asko jorratu dituzte. ◀

Hitza emanda



Sua

Donibanez ohi gara inguruan bildu;
gaitzak kanporatzeko
sua darabilgu.
Nahiz eta epel egon
sutatik hurbil gu,
aukeran ez gaitezen
gehiegi hurbildu!



KERMAN
DIAZ FRANCO
Bertsolari urruñarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Bizkaiko Parkinson Elkarteko abesbatzak Berangon abestuko du. © ASPARBI

Parkinsona ez dadila abesteko traba izan

Aurten ere Berangon emanaldia eskainiko du Asparbi elkarteko abesbatzak; kontzertua udal-pilotalekuan egingo dute, domeka honetan, ekainaren 18an. Hitzordua 13:00etan ipini dute; sarrera, doan. Erakunde horren musikoterapia-zerbitzuaren helburua da parkinsona

daukaten pertsonen berba egiteko gaitasunari eustea. Bizkaiko Parkinson Elkarteko abestaldeko kideak ez dira agerlekuan bakarrik egongo; izan ere, eurek batera kantatuko dute Berangoko emakumeen eta nagusien elkar-teetako koruek eta Sopelako Lagun Artea abesbatzak. ◀

Portugalen kantatuz ospatuko du mende laurdena Lirain abesbatza gorliztarrak, aste honetan

Erainaren 16tik 23ra bitartean, Portugalen egongo dira Gorlizko Lirain abesbatzako kideak; koruaren 25. urteurrena ospatzeko aprobetxatuko dute bidaia. Hala, Lisboako Foz Jauregian abestuko dute, zapatu honetan, hilaren 17an; oster, domekan, Belém auzoko Santa Maria elizan egingo duten mezan parte hartuko dute. Ostean, Gorlizera bueltatzean, Bakioko koruagaz eta Albokaleko musikariakaz kalejira egingo dute, uztailaren 1ean, zapatuan; eta elkarregaz bazkalduko dute denek. Egitarauari jarraituz, ohiko Udako Kontzertua egingo dute, uztailaren 8an, zapatuan; Marta Urbidea sopranoak eta Bilboko Koralak ere abestuko dute egun horretan. Azkenik, santiagoetan, Lirain abesbatzako kideek irakurriko dute jaien hasierako pregoia. Horrez gainera, Danok Bat zortzikoteagaz eta Txuma Olague abes-taldeagaz kantatuko dute, Habanera Jaialdian, uztailaren 22an, zapatuan. ◀



Egitasmoa aurkeztu dute Iñaki Lagosek, David Crestelok eta Alex Ygartuak. © PLENTZIAKO UDALA

Kulturaz blai

Plentzia kulturaz betetzeko egitasmoa aurkeztu dute. Helburua da udalerria askotariko kultura-saioez betetzea, herritar denen gozamenerako.

Plentzia Kulturaz izeneko egitasmoa aurkeztu zuten joan den ekainaren 6an, Hotel Boutique Bahía de Plentzian. Azaldu zuten, herria kulturaz «jantzi nahi duen» ekimena da, «jendea kulturaz blai busti eta gure herrian kulturaz hitz egitea nahi duena ere bai». Modu berean, sortzaileei laguntza eskaini gura die egitasmoak, euren artea auzoki-

deei erakusteko aukera emanez. «Gure herrian kulturak duen garrantzia bultzatzeko marka da Plentzia Kulturaz», azaldu zuten Alex Ygartua eta Iñaki Lagos bertoko artistek, David Crestelo alkateagaz batera. Udalak sortutako ekimena da eta egutegiko «lehenengo lerroan» jarduera artistikoak jartzeko helburuagaz ekingo diote bideari, herritarren inplikazioa bilatuz. ◀

Aingeru Epaltzagaz berbaldia egingo du Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak, ekainaren 22an

Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak ikasturte honetako azkenengo saioa izango du ekainaren 22an, egunean. Oraingo honetan, Aingeru Epaltza (Iruñea, 1960) etorriko da Algortako Villamonte kultur etxera. Hala, 19:30etik aurrera, Epaltzak Rock & Roll liburuaz berba egingo du hainbat irakurzaletan.

Ordura arte zapaldu gabeko lurretan barna abiatu zen Epaltza eleberri horregaz. 2000. urtean plazaratutako nobela beltzaren parametroen barruan sartzen da *Rock & Roll*: Edu Saragueta kazetariak hilketa baten eta gorpu baten desagerpena ikertu beharko ditu, eta, apurka, hasierako ikerlana konplikatuz joango da. Izenik aipatzen ez den arren, Iruñea izan litekeen hirian kokatu zuen Epaltzak eleberria, baina fikzioaren beharretara egokitutako hiria da nobelakoa: abuztua denez, jendez hustua, leku dekadenteak eta bazterrekoak dira gertaeren agerlekuak. ◀



Saioa ekainaren 16an izango da, barikuan, 22:00etatik aurrera.

Balkoitik balkoira bertsotan jardungo dute Uriak eta Martinek

Balkoitik Balkoira bertso-ikuskizunaren 19. edizioa egingo dute barikuan, hilaren 16an, Algortako Portu Zaharrean. Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) antolatzen duen bertso-saio berezian, oraingo honetan, Imanol Uriak eta Alaia Martinek kantatuko dute.

Ohi legez, ekitaldia Portu Zaharreko Etxetxu plazan izango da, 22:00etatik aurrera, doan. Balkoitik

Egitaraua

Ekainaren 23tik 24ra

Lanbro Beltza

Genero beltza lantzeko literatura-topaketak.

Ekainaren 30etik uztailaren 1era arte

Mikrofilm Short Festival

Genero beltzeko film laburren festibala.

Abuztuaren 19an, zapatuan

AgorriJAZZ

Jazz musikaren inguruko jaialdia.

Irailaren 16an, zapatuan

Arte Kale

Kalea antzerkiz betetzeko eguna.

Urriaren 5etik 17ra

Musika Klasikoa Jaialdia

Kontzertuak Plentziako elizan.



Andy Hansonen dosia

JON URRAZA INTXAUSTI
Aktorea

Mundua aldatzea antzerkiaren bitartez

Dramatika Aristotelikoa, ikusleak, heroiarekin identifikatzerakoan, honen patua saihestezina dela barneratzen duela zioen Bertolt Brecht-ek, eta ondorioz, antzerkiaren bidez gizartea aldatzeko helburuarekin, *Antzerki Epikoa* garatu zuen. Brecht-en iritziz, heroiaren egoerarekiko hipnosi efektu horrek, ez baitu lortzen menderatutako klase soziala, boterearekiko erabateko errespetua eragiten dion are sakonagoa den hipnosi egoeratik ateraraztea, eta hori lortzen saiatzeko, *Verfremdung Effekt* edo urrunketa asmatu zuen, «irudikatzen ari den prozesuaren aurrean ikuslearengan jarrera analitiko eta kritikoa» (Brecht, B.) eragiteko.

Augusto Boal-ek, helburu bera lortu nahi zuen antzerkia eta interpretazioa bera desagerrarazten zuen *Antzerki Ikusezinaren* bitartez. «Augusto Boal-ek, Brecht-ek amestutakoa lortu du: entretenigarri, dibertigarri eta hezigarria den antzerki baliagarri bat sortzea» (Schechner, R.). Eta hau lortzen du, ez *V-Effektaren* bitartez, baizik eta aktorearen antzezpena desagerraraziz, interpretazioaren estetika ez antzeztua, gardena eta ikusezina bilatuz, antzerkiaren ideia ikusleen burutik desagerraraztea lortzeko helburuarekin. Antzerki Ikusezinak fikziozko eszenak eskaintzen ditu, baina «antzerki konbentzionalaren aringarri erritualistatik gabe, fikzio hori errealtate bihurtzen da. Antzerki Ikusezina ez da errealtate: errealtate da. Eta errealtate horretan gertatzen da dena». Hau da, «errealtate eta fikzioa nahasten dira, dena da errealtate, nahiz eta aurretik entseatua izan den» (Boal, A.), edo beste modu batez esateko, Borja Ruiz-ek adierazten duen bezala: «ikusleak errealtate bat ikusten du fikzioa dagoen lekuan» (Ruiz, B.). ◀

balkoira bertso-modalitate ikusgarrian parte hartzen duten bertsolari biek balkoi banatik botako dituzte bertsoak. Bertsolaritzaren historiako lehenengo saio dokumentatua Villabonan (Gipuzkoa) izan zen, 1801ean. Tradizio hori berpizteko asmoz, 1999an abiatu zen Algortako balkoitik balkoirakoa. Lehenengo ekitaldia San Nikolas plazan egin zen; ordutik aurrera, Portu Zaharreko Etxetxu plazan egiten dute. ◀

«Hurrengo ikuskizuna noiz emango dudan galdezka hasi zait jendea»

DJ Deustoo musikari gazteak Algortako Portu Zaharreko jaietan eskainiko ditu hurrengo emanaldiak.

TESTUA: **KEPA UGARTE MARTIARENA**
ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

Musika ipintzeaz gainera, agerlekuaren gainean, dantza egitea eta ikusleak hartu-eman izatea gogoko du Iker Deusto Villanuevak. Etxean, Algortako Portu Zaharrean, eskaini zuen iaz lehenengo emanaldia 16 urteko gazteak. Aurton, Printzi Anaiakaz igoko da bertoko oholtzara berriro, jaietan, abuztuaren 12an, zapatuan. Horrez gainera, domeka arrastian ere emango du showa.

Noiz erabaki zenuen Dja izatea?

Beti interesatu egin zait musika. Txikitant, dantza egiten nuen; horrez gainera, musika asko entzuten nuen. Hala ere, joan den uda har daiteke inflexio-puntutzat: Algortako Portu Zaharrean zeozer egiteko aukera eman zidaten, eta musikagaz zerikusia zeukan zer-bait egitea erabaki nuen.

DJ edo musika-jartzaileen artean, zein entzuten duzu gustukoen?

Nazioartekoen artean, David Ghetta, Martin Garrix eta beste batzuk dira nire gogokoenak. Horrek ez du esan gura etxekoei ere jarraitzen ez diedanik; herriko DJen musikagaz hazi naiz. Espainian ere DJ asko dago: Dulceida, barbarako.

Djen lana erraza dela pentsatzen dute batzuek. Zer esango zenieke?

Esan daiteke orain arte ez dudala gauza handiegirik egin: beste baten musika hartzen dut, eta nahastu egiten dut. Hasiberria baino ez naiz. Hala ere,



Etorkizunean, musika-ekoizlea izan gura du Iker Deustok. Bitartean, bere adinekoek momentu atsegin bat pasa dezaten ahalegintzen da DJ Deustoo.

denbora pasa ahala, zuk zeuk egingadako musika entzuteko gogoz egoten dira zaleak. Disko-jartzaile bakoitzak bere estiloa dauka; horregaz, bere DJ-showa egiten du.

Dja izateko trebatu beharra dago? Beharrezkoa da prestatzea?

Bai, noski! Hala ere, bakarrik musika ipintzen duten DJ horietako bat ez dut izan gura; euren musika produzitu egiten dute horiek, eta besteen musika «pintxatu» edo ipini ere bai. Nik 16 urte baino ez ditut oraindino, eta ez dut horrelakorik egiteko aukerarik izan. Kontuak hala, showa egiten dut, hau da, dantzan egiten dut, dantza ezberdinak, ikusleakaz berbetan egoten naiz... Aurreko batean, bi hilabetez egon nintzen dantza bat prestatzen, beste sei dantzarigaz batera. Beste batzuetan, musika ipintzen dut bakarrik,

“Musika eta dantza, entretenimendua eta jendeagaz ondo pasatzea atsegin ditut”

eta, bitartean, nik dantza egiten dut jendearen aurrean.

Uste duzu honetaz bizi zaitezkeela?

Gustatuko litzaidake; garrantzitsua da gustuko duzun horretan lan egitea. Musika, entretenimendua eta jendeagaz momentu dibertigarriak izatea atsegin ditut. Hala ere, hasiberria izanda, ez du bizitzeko ematen.

Kontzertu asko egin dituzu?

Bi baino ez. Portu Zaharreko iazko jaietan lehenengo aldiz; oso urduri

nengoen; baina, oso ondo atera zen. Orain dela hilabete Getxoko San Isidro jaietan egon nintzen; hilabete bi izan nituen prestatzeko eta, lehenengoz, dantzariak hartu nituen ikuskizuna egiteko. Daborduko jendea hasi zait hurrengo saioa noiz egingo dudan galdezka; badut zeozer eskuartean...

Zer lortu gurako zenuke?

Momentuz, ikuskizunakaz gozatu gura dut. Egia da emanaldiengatik ordaindu egiten didatela; baina, orain, ondo pasatzea da nire helburua. Jendea musika entzutera eta dantzatzeratortzen da nire saioetara. Nire helmuga edo musika-ekoizle bihurtzea izango litzateke; horixe, benetan, asko gustatuko litzaidake. Bitartean, nire emanaldia egiten, nire showa eskaintzen segituko dut. Momentuz, herriko jaietan baino ez naiz egon. ◀

Roke Deuna 25 - Getaria. T. 943.140.143 www.saiaszgetaria.com

XV. mendeko dorretxe gotikoa!



Altzagako pabiloia bete egin zen omenaldian. © JUAN GÓMEZ - ERANDIOKO UDALA

José Antonio Zarraga saskibaloietrenatzaile erandioztarrari omenaldi jendetsua egin zioten Altzagan pasa den astean; emakumezkoen parte-hartzearen bultzatzailea izan da.

Euskal Herriko saskibaloietmunduan, ezaguna da José Antonio Zarraga; are gehiago emakumezkoen saskibaloietaldeetan. Izan ere, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan entrenatzaile izan zen sortutako emakumezko talde bakanetako batzuetan. Gainera, 1985ean, Altzagako Compasión ikastetxeko taldea sortu zuen, bertako neskek joka zezaten. Garai hartan, lan berezia egin zuen

taldea aurrera atera zedin. Handik aurrera, zenbait klub zuzendu zituen Zarragak. Gaur egun, 73 urte ditu eta kirol-zuzendaria da Erandioiko Peña Bilbao Basket SBT klubean; daborduko, hiru hamarkada baino gehiagoko eskarmentua du.

Hala, orain arte egindako ibilbidea omentzeko, eta batez ere emakumezkoen euskal saskibaloietari emandako bultzada eskertzeko, omenaldia pres-

tatu zioten pasa den ekainaren 4an, domekan, Kirol Astearen barnean. Ezkutuan gorde zuten ekimena, Zarraga omenaldiaz jabetu ez zedin. Horretarako, klubeko adiskideek konbentzitu zuten saskibaloietarakustaldi bat antolatzen laguntzeko.

Lehenengo orduan, kirol-elkarteetako talde denak nahastu zituzten, eta erakustaldi dibertigarria jokatu zuten. Hori amaitzean, pabiloian agertu zi-

ren 69 emakume jokalarietbeterano, Zarragaren aginduetara kantxan jardun zutenetako batzuk. Andrek kamiseta zuri-urdinak zeroatzaten, «Eskerrik asko, Josean» eta «Zarraga 00» testuakaz. Ekitaldi hunkigarriet horretan, zenbait opari egin zizkieten Zarragari: lore-sorta, oroitze-plaka, garaikurra eta argazki-album bat, berak zuzendutako emakumezkoen taldeen argazkiakaz. Erandioiko Peña Bilbao Basket SBT klubak pozik azaldu duenez, «saskibaloietak zor ziona aitortu dio herrit honi asko eman dion gizon bati, Josean Zarragari». ◀

Hondartzako eskubaloiettxapelketa, Ereagan

Barikutik domekara, ekainaren 16tik 18ra bitartean, Romo Hondartzat Teamek bigarren eskubaloiettxapelketari ekingo dio, Algortako Ereaga hondartzan.

Antolatzaileek Bizkaiko eta Kantabriako 300 kirolari batuko dituzte Algortako hareatza horretan. Talde hauek ibiliko dira lehian: eskola-, kadete-, gazte-, eta senior-mailakoak, emakumezkoetan zein gizonezkoetan. Izan ere, talde itzubaltzetarraren asmoa da hondartzat-eskubaloiet «txiki-en artean sustatzea».

Kirol-erakustaldiaz doan gozatu ahal izango da barikuan, 16:00etatik

21:00etara; zapatuan, 09:00etatik 21:00etara; eta, domekan, 09:00etatik 15:00etara. Talde bakoitzean, lau jokalariek jardungo dute hamar minutuko set bitan. Denbora hori agortzean berdinketa izango balitz, *shoot out* erronda egingo da. Hiru pauso ematea zilegi den kontraeraso horien ondoren taldeek berdinduta segituko balute, urrezko tantora jokatuko lukete, batbaterako heriotza moduko sisteman.

Barikuan eskola-kiroleko taldeen arteko partidak izango dira; zapatuan kadete-, gazte-, eta senior-mailetakot lehia egongo da ikusgai; eta domekan, berriz, finalak jokatuko dituzte. ◀

Goiherriet 640 kiloko txapela lor dezake

Datorren zapatuan, hilaren 17an, 17:30etik aurrera, erabakiko da zeinek jantziko duen Lur Gainerako Euskadiko Sokatira Txapelketatko txapela, 640 kiloko mailan. Joko-eremua Mallonako futbol-zelaia izango da, Begoñako antzinako errepublikan, Bilboko udalerrian. Faborito nagusia Goiherriet A taldea da. Izan ere, orain arteko saio biak irabazi zituen, Berrizen eta Martiartun, eta bi puntuko aldea atera dio Gaztedi A taldeari. Laukizkoek oso zaila dute egoera horri buelta eman ahal izatea. Pasa den zapatuan Erandion jokatutako azken saioan, Goiherriet A tiraldi denetan na-



Ezusteriek ezean, Goiherriet Ak jantziko du txapela. gusitu zen. Laukizko Gaztedi Ak, ostera, berdez jantzitakoan aurka besterik ez zuen galdu, eta bigarren postuagaz konformatu behar izan zuen. Hirugarren postuan, berriz, berdinduta geratu ziren Goiherriet B eta Mutriku. ◀

Getxoko kirol-campusak, prest



Ur-kirolak ere aukeran izango dira. © GETXOKO UDALA

Getxo udalerriko 18 klubek kirol-campusak eskainiko dituzte uda honetan, ekainaren 22a eta irailaren amaierara bitartean, Getxo Kirolak udal-erakundeak jakinarazi duenez. Izan ere, erakunde horregaz elkarlanean dabilta kirol-elkarteak, 18 kirol-campusetako eskaintza egin ahal izateko.

Horrenbestez, hiru eta 18 urte bitarteko umeei eta gazteek gozatu ahal izango dute uda bitartean honako kirol-modalitate hauetako kirolen bat praktikatzeko: kirol egokitua, gimnastika erritmikoa, askotariko kirola, saskibaloia, igeriketa, tenisa, futbola, irristaketa, boleibola, hockeya, errugbia, xakea eta kayaka, besteak beste.

Getxoko Udalak gogorarazi duenez, kirol-campusak «eskolako opor garaian antolatzen dira herriko umeei aisialdirako aukera osasuntsuak eskaintzeko eta gurasoen kontziliazioa errazteko» helburuagaz. ◀

info+: Getxo.eus/eu/getxo-kirolak

Gimnasia eta irristaketa

685 545 032 / 688 854 887 /
664 570 994 / 615 501 624

Saskibaloia

657 773 523 / getxosaski@gmail.com

Igeriketa eta askotariko kirola

663 871 318 / getxoibke@gmail.com

Tenisa eta askotariko kirola

685 751 688 / 609 400 742

Futbola eta askotariko kirola

676 471 175 / 615 982 663 /
657 268 606 / 664 570 994

Boleibola

654 738 779 / campusvoleigetxo@gmail.com

Hockey eta surfa

627 036 911 / 699 511 189 /
info@hockeysurfcamp.com

Errugbia eta askotariko kirola

688 874 714 / idazkaritza@getxorugby.eus

Xakea

688 677 874 / info@damagaztea.com

Kayaka eta askotariko kirola

652 719 229 / urudalekuak@innsoul.net

Egokitutako inklusio-campusa

699 609 588 / hasztenkirola@gmail.com

Jolaseta, Euskadiko eta Bizkaiko txapelkun

Jolasetako tenis-taldeak Euskadiko Taldekako Txapelketa irabazi berri du gazte-mailan. Konbinatua lehiaketa-eskolako ikasle hauek osatu zuten: Mercedes Aristegui, Lucía de la Puertak, Sofía Blancok eta Carmen Aizpuruak. Hala, lau jokalariek Zaragozara bidaiatuko dute datorren irailean, bertan Espainiako Taldekako Txapelketa jokatzeko, gazte-mailan. Halere, hori ez da Jolasetakoak azken boladan batu duten sari bakarra. Fadurako tenis-klubean jokaturako Bizkaiko Txapelketan emaitza onak lortu zituzten maila absolutuan: Lucía de la Puertak txapela jantzi zuen; eta bina-



Euskadiko txapelkunak eta teknikoak. © JOLASETA

kako modalitatean, Sofía Blancok eta Carmen Aizpuruak irabazi zuten. Bestalde, Alaia Rubio, Playas de Getxo taldekoka, Euskadiko txapelkunorde izan da, haur-mailan. ◀

Roberto Tamayo futbol-lehiaketa prest dago

Datorren aste-akabuan, ekainaren 17an eta 18an, Emakumezkoen Getxoko Nazioarteko Futbol Txapelketa jokatu da 11. aldiz, Bolue eta Fadurako zelaian. Ohi legez, Roberto Tamayo zenaren omenez jokatu da. Valadares de Gaia talde portugaldarra izango da gonbidatuetako bat aurtengo futbol-txapelketan. Beragaz batera parte hartuko dute Athleticetik, Bartzelonak, Atlético de Madridek, Erandioko Betiko Neskak hamaikakoa eta etxeko taldeak: Bizkerrek. Hortaz, «goi-mailako txapelketa» izango da Bizkerrek antolatutakoa, klubak iradoki duenez. Zapatuan,



Bartzelona da talde faboritua. © GETXOKO UDALA

kanporaketak jokatu dira 10:30etik aurrera Bolue 1 eta 2 zelaian. Finalak domekan jokatu dira, Fadurako zelaian. Final handia 12:15ean izango da. Partida denak doan ikus daitezke. ◀

Getxoko Akuatloia irabazi dute Itziar Porterok eta Iñaki Loinazek

Itziar Porterok Getxo Triatloi Taldekoko kideak eta Iñaki Loinaz ANB Urdaitri Motivación taldekoko partaideak estreinatu dute Getxoko Akuatloiko irabazle zerrenda. Izan ere, pasa den domekan jokatu zen proba horren lehenengo edizioa, eta biak nagusitu ziren Areetako helmugan, korrika egiten eta igeri egiten sei kilometro eman ostean. Modu berean, Bizkaiko Akuatloi Txapelketa lehiatzeko baliatu zu-

ten Getxoko lasterketa eta, halandaze, Bizkaiko txapela jantzi zuen Porterok. Gizonezkoen kasuan, Andoni García laugarren sailkatuak jantzi zuen Bizkaiko txapela, santurtziarra izan baitzen lurraldeko lehena helmugan. Lehiaketa-proban 46 kirolarik hartu zuten parte. Getxoko Akuatloia antolatu zuten TKrono Triatloi Klubak, Bizkaiko Triatloi Federazioak eta Euskadiko Triatloi Federazioak. ◀

Athletic Eguna egingo du domekan Goitiko Athletic Taldeak, Astrabuduan

Goitiko Athletic Taldeak zapatuan antolatuko du Astrabuduko Athletic Eguna, hilaren 17an. Athleticzaleek Gorka Iraizoz atezainaren erretratuagaz iragarri dute zortzigarren edizio hori. Hala, goizeko 11:00etatik aurrera, neska-mutiek puzgarrietan gozatu ahal izango dute Mendiguren plazan; 11:30ean, txosnan pintxo-poteak zerbitzatzen hasiko dira; eta gura duenari argazkia egingo diote. 15:00etan, pae-

lla-jana egingo dute; bertaratu gura duenak txartela eros dezake 7 euroan, Beltzez Pub eta Primera Linea tabernetan. Bazkalostean, egindako argazkien erakusketa ipiniko dute Takoloseko kideek. Arrastian, mahai-futboleko mus- eta tute-txapelketak izango dira nagusientzat, eta, puzgarriak, gazte-txontzat. 20:00etan hasiko dira kontzertuak, Sapo y el Sello eta Diversion Rock taldeak. ◀

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



Sopelako Oinutsik zentroari esker, kiropodia-saio bat zozkatuko dugu

Podologia-saio hori lortu gura baduzu, ekainaren 20a (martitzena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Ekaineko saria
Parapente-hegaldi bat, udan gozatzeko



Hilabete honetako sari hori HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean zozkatuko dugu. Zozketan parte hartzeko, bidali ekainaren 30a (barikua) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

	2					9	
3			7				
8			6	4			
		4		1		5	
						8	6
2				3			1
7			1			3	4
	3						
		1	5	7		8	

Soluzioa

6	7	8	5	2	9	1	4
5	1	2	4	9	7	8	6
4	5	9	8	6	1	7	3
1	4	6	9	5	8	2	7
9	8	7	2	5	4	6	1
5	2	9	7	1	6	4	8
7	9	5	6	4	9	2	1
8	9	1	5	7	2	6	4
2	6	4	1	8	5	9	7

+ Guardiako farmaziak, hilaren 15etik 21era

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00.

IRUSTA. Axcane bidea, 1. 946 680 153. Eguenean, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik barikuko 09:00ak arte.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

GARCIA. José Luis Goioaga et., 25. ALTZAGA. 944 671 496. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik asteleheneko 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

ESQUISABEL. Algortako Etorb., 32. ALGORTA. 944 602 529. Zapatuan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

GARDE. Iparbide, 7. ALGORTA. 944 305 052. Domekan, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00; domekan, 09:00-13:30.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO.

944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00; barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30; eeguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Domekan eta astelehenean, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Barikuan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Martitzenean, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00etatik asteleheneko 22:00ak arte.

Sopela

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00-13:30.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00.

Lehen/Orain

Alango (Algorta), 50. hamarkada



© MEMORIAS DE GETXO



Erretratua

Andoni Pavón Díaz

Lamiakoko bizilaguna eta San Mameseko behargina.



Sanjuanak hurbil daudela, Pavónek esku bete lan dauka: kuadrillagaz festak prestatu, 1. hizkuntza eskakizunerako asko ikasi eta San Mames garbi utzi.

Leioako sanjuanak «laster hasiko direnez, daborduko hasi gara kuadrillan karroza eta beste dena prestatzen», azaldu du Andoni Pavónek. Su Ta Jai da Pavónen kuadrilla, Leioako festa nagusietan, «baina, San Bartolomeko jaietan, beste kuadrilla bategaz ere banabil: Inpernuko Edabea», dio 32 urteko lamiakoz-tarrak. Leioan, «jaietsiera da kuadrillen probarik garrantzitsuena; hala ere, zapatuan, herri-kirolak ere gustukoak ditugu, elkarregaz jolasten eta lehiatzen baikara». Bertako jaietara hurbilduko denari ondo pasatzea opa dio, «ondokoak errespetatuta». Ostera, berak ez du parranda larregirik egingo; «aspaldian egiten nuen, baina, daborduko, ez». Izan ere, egunotan bere kezka nagusiak dira ahalik eta atarramentu onena ateratzea Deustuko Larra-ko AEK euskaltegian jasotzen dituen euskara-eskolei eta lehenengo hizkuntza-eskakizuna gainditzea. Kulturgintzan urte dezente egin ditu Pavónek.

«Txikia nintzela, nire osaba Txikiak dantza-taldean zebilen, eta familia-sustrai horrek eroan ninduen auzoko taldean dantzan hasi eta segitzera», akordura ekarri du. Txikiak etenaldia egin zuenean, «Agurrako kide batzuek esan zidaten (aspalditik ezagutzen nituen, harreman ona geneukan) eure-

“Jaietsiera da Leioako jaietan kuadrillen probarik garrantzitsuena”

nera joateko, eta baietz esan nien, kirol apur bat egiteko». Urteak eman zituen bertan, 30 urte zituela utzi zion arte: «dantza berdinakaz nekatzen hasi nintzelako eta fisikoki ahalegin handia delako». Bestalde, athleticzalea pozik dago lanagaz; futbol-zelaia garbitzen du, partiden osteko egunetan, beste 25 behaginez batera. ◀

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua